

MUSIKA

ELCANO LIZASO, Oihane

EMOZIOEN HEZKUNTZA BIDERATZEKO
MUSIKA SORMENAREN PROPOSAMEN
BATEN DISEINUA / DISEÑO PARA EL
TRABAJO DE LA EDUCACIÓN EMOCIONAL
DESDE LA CREATIVIDAD MUSICAL

GBL / TFG 2013



Facultad de Ciencias Humanas y Sociales
Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea

Haur Hezkuntzako Irakasleen Gradua /
Grado en Maestro de Educación Infantil

Haur Hezkuntzako Irakasleen Gradua
Grado en Maestro en Educación Infantil

Gradu Bukaerako Lana
Trabajo Fin de Grado

EMOZIOEN HEZKUNTZA BIDERATZEKO MUSIKA
SORMENAREN PROPOSAMEN BATEN DISEINUA
/ DISEÑO PARA EL TRABAJO DE LA EDUCACIÓN
EMOCIONAL DESDE LA CREATIVIDAD MUSICAL

Oihane ELCANO LIZASO

GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIEN FAKULTATEA
FACULTAD DE CIENCIAS HUMANAS Y SOCIALES

NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA
UNIVERSIDAD PÚBLICA DE NAVARRA

Ikaslea / Estudiante

Oihane ELCANO LIZASO

Izenburua / Título

Emozioen hezkuntza bideratzeko musika sormenaren proposamen baten diseinua /
Diseño para el trabajo de la educación emocional desde la creatividad musical

Gradu / Grado

Haur Hezkuntzako Irakasleen Gradua / Grado en Maestro en Educación Infantil

Ikastegia / Centro

Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea / Facultad de Ciencias Humanas y Sociales
Nafarroako Unibertsitate Publikoa / Universidad Pública de Navarra

Zuzendaria / Director-a

Alejandro MARTÍNEZ ARANA

Saila / Departamento

Psikologia eta pedagogia / Psicología y pedagogía

Ikasturte akademikoa / Curso académico

2012/2013

Seihilekoa / Semestre

Udaberria / Primavera

Hitzaurrea

2007ko urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretua, 2010eko 861/2010 Errege Dekretuak aldatuak, Gradu ikasketa ofizialei buruzko bere III. kapitulu hau ezartzen du: “ikasketa horien bukaeran, ikasleek Gradu Amaierako Lan bat egin eta defendatu behar dute [...] Gradu Amaierako Lanak 6 eta 30 kreditu artean edukiko ditu, ikasketa planaren amaieran egin behar da, eta tituluarekin lotutako gaitasunak eskuratu eta ebaluatu behar ditu”.

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Haur Hezkuntzako Irakaslearen Graduak, ANECAk egiaztatutako tituluaren txostenaren arabera, 12 ECTSko edukia dauka. Abenduaren 27ko ECI/3854/2007 Aginduak, Haur Hezkuntzako irakasle lanetan aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizialak egiaztatzeko baldintzak ezartzen dituenak arautzen du titulu hau; era subsidiarioan, Unibertsitatearen Gobernu Kontseiluak, 2013ko martxoaren 12ko bileran onetsitako Gradu Amaierako Lanen arautegia aplikatzen da.

ECI/3854/2007 Aginduaren arabera, Haur Hezkuntzako Irakaslearen ikasketa-plan guztiak hiru modulutan egituratzen dira: lehena, oinarrizko prestakuntzaz arduratzen da, eduki sozio-psiko-pedagogikoak garatzeko; bigarrena, didaktikoa eta diziplinakoa da, eta diziplinen didaktika biltzen du; azkenik, Practicum daukagu, zeinean graduko ikasleek eskola praktikan lortu behar dituzten gaitasunak deskribatzen baitira. Azken modulu honetan dago Gradu Amaierako Lana, irakaskuntza guztien bidez lortutako gaitasun guztiak islatu behar dituen. Azkenik, ECI/3854/2007 Aginduak ez duenez zehazten gradua lortzeko beharrezkoak diren 240 ECTSak nola banatu behar diren, unibertsitateek ahalmena daukate kreditu kopuru bat zehazteko, aukerako irakasgaiak ezarriz, gehienetan.

Beraz, ECI/3854/2007 Agindua betez, beharrezkoa da ikasleak, Gradu Amaierako Lanean, erakus dezan gaitasunak dituela hiru moduluetan, hots, oinarrizko prestakuntzan, didaktikan eta diziplinan, eta Practicumean, horiek eskatzen baitira Haur Hezkuntzako Irakasle aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizial guztietan.

Lan honetan, oinarrizko prestakuntzako moduluak musika sormena eta emozioak eragiten duten ikuspuntu didaktikoaren alorrak jorratzeko bidea eman du; besteak beste: hezitzailearen papera, espazio eta denbora antolaketa, material curricularra eta ekintzen plangintza. Esparru hauek, hain zuzen ere, arlo teorikoan ageri dira landuta eta diseinuaren proposamenean aplikatuta.

Didaktika eta diziplinako moduluak emozioak eta sormena hezteko beharra ulertzeko bidea eman du, izan ere, hauek haurraren garapenaren parte direla baieztatu izan ahal dut. Lan honetan bi esparru hauek duten hezkuntzaren beharraren nolakotasuna ulertzeko pedagogo desberdinen ikuspuntuan oinarrituta arlo teorikoan bakoitzaren inguruko atalak garatuta daude.

Halaber, Practicum moduluak haurrek emozioak adierazteko dituzten arazoak direla eta hauek komunikatzen ikasteko beharra aztertzeko bidea eman du eta haur bakoitzera egokitzen den adierazpen bidea aurkitzeko beharra ere. Hori jakinda, musikak haurren jokabideetan duen eragina ikertu ahal izan dut Practicum moduluaren bitartez eta musikaren sormena komunikazio bidetzat kontsideratzeko aukera ere izan dut.

Azkenik, ECI/3854/2007 Aginduak ezartzen du, Gradua amaitzerako, ikasleek gaztelaniazko C1 maila eskuratuta behar dutela. Horregatik, hizkuntza gaitasun hau erakusteko, hizkuntza honetan idatziko dira gaztelaniaz *antecedentes, objetivos y cuestiones eta conclusiones* atalak, baita hurrengo atalean aipatzen den laburpen derrigorrezkoa ere.

Laburpena

Musika hezkuntzaren helburua ez dago musikariak sortzera bideratuta. Musika hezkuntzak Haur Hezkuntzako izaera kontuan hartzen du, horrenbestez, haurraren garapen kognitiboan, sozialean eta afektiboan laguntzen duen hezkuntza da.

Lanaren helburu nagusia musika sormena lantzeko proposamen baten diseinu egoki bat lortzea da. Musika sormena musikaren konposizioa baino gehiago dela jakin izan ahal da, hortaz, proposatzen den diseinua emozioen hezkuntzan oinarritutakoa izango da, hain zuzen ere, emozioak musikaren bidez adierazten ikasteko proposamena.

Honela, haurrei musika adierazpenaren aukera ezagutzera emango diegu eta bakoitzak bere nortasunera egokiena dena ezagutzeko aukera edukiko dute. Ondorioz, proposamen honen bidez haurrei musika komunikazio bide aurkezten zaie eta musikak sortarazten dien emozioen arabera horiek musika sortuz adierazi beharko dituzte.

Hitz gakoak: musika hezkuntza; sormena; musika sormena; emozioen hezkuntza; musika adierazpena

Resumen

El objetivo de la educación musical no es crear futuros músicos. La educación musical se basa en el carácter de la Educación Infantil, es decir, es un proceso que ayuda en el desarrollo cognitivo, social y afectivo del alumnado.

Por ello, mediante este trabajo hago la propuesta de un diseño para el trabajo adecuado de la creatividad musical. La creatividad musical es algo más que la composición musical, y es por lo que esta propuesta se basa en la educación emocional, y concretamente, en la expresión de las emociones mediante la música.

De esta manera, enseñaremos a los niños y a las niñas la opción de la expresividad musical para poder seleccionar el método que más se adecue a su carácter. En consecuencia, en este diseño la música se presenta como medio de comunicación, por lo que tendrán que expresarse mediante la creatividad musical aquellas emociones que se crean por la propia música.

Palabras clave: educación musical; creatividad; creatividad musical; educación emocional; expresividad musical

Abstract

The aim of music is not to create future musicians. Music education is based on the nature of Early Childhood Education, that is, a process that helps in the cognitive, social and emotional development of students.

Thus, through this work, I design a proposal for the proper work of musical creativity. It is more than musical composition, and that is why this proposal is based on emotional education and more specifically, on the expression of emotions through music.

By this way, we will teach children the option of musical expressivity, so that they can select the method that best suits their character. Therefore, in this design music is presented as a means of communication, where children will express their emotions and feelings created by music through musical creativity.

Keywords: musical education; creativity; musical creativity; emotional education; musical expressivity

Aurkibidea / Índice

Antecedentes, objetivos y cuestiones	1
1. Arlo Teorikoa 1	7
1.1 Musika Haur Hezkuntza etapan 1.1	7
1.1.1 Musikaren eboluzioa : gerturatze historikoa musika pedagogoen ikuspegitik 1.1.1	7
1.1.2 Gaur egungo egoera 1.1.2	12
1.1.2.1. Marko legegilea: musikaren egoera Hezkuntzaren Lege Organikoan 1.1.2.1	12
1.1.2.2. LOE legearen garapen arauemailea: Musika Hezkuntza Haur Hezkuntzako Curriculumean 1.1.2.2	13
1.2 Musika sormena	17
1.2.1 Musika sormenaren eboluzioa: gerturatze historikoa pedagogo desberdinen ikuspegitik 1.2.1	17
1.2.2 Musika sormena kontzeptuaren gerturatzea 1.2.2	22
1.2.3 Musika adierazpenaren garapen psikologikoa Haur Hezkuntzan 1.2.3	26
1.2.4 Haur Hezkuntako gela 1.2.4	28
1.3 Emozioen Hezkuntza 1.3	30
1.3.1 Musika eta emozio adierazpenaren arteko harremana 1.3.1	30
1.3.2 Emozioen Adimena Haur Hezkuntzan 1.3.2	32
2. Materialak eta metodoak 2	35
2.1 Ikerketa oinarritutako Haur Hezkuntza gela 2.1	36
2.2 Testu liburuaren izaera eta ikerketa egiteko irizpideak 2.2	37
3. Emaizak eta eztabaidak 3	41
3.1 Musikaren eragina Haur Hezkuntza gelan 3.1	41
3.1.1 Joko librean 3.1.1	41
3.1.2 Proposamen gidatuetan 3.1.2	43
3.2 La Batuta Mágica testu liburuaren azterketa 3.2	44
3.2.1. Musika komunikazio bide baloratuta 3.2.1	45
3.2.2. Testu liburuko unitateen azterketa 3.2.2	47
3.2.3. Unitate guztien azterketa orokorra 3.2.3	55
3.3 Diseinuaren proposamena 3.3	57
3.3.1. Sarrera 3.3.1	57
3.3.2. Proposamenaren egitura 3.3.2	58
3.3.3. Materialak eta baliabideak 3.3.3	62
3.3.4. Zeharka landutako gaitasunak edo konpetentziak 3.3.4	63
3.3.5. Saioaren ebaluaketa 3.3.5	65
Conclusiones y cuestiones abiertas	67
Erreferentziak	71
Eranskinak	73
Eranskinak I : diseinuaren musikograman erabiliko diren irudien proposamenak	73
Eranskinak II : behaketa eta ebaluazioa aurrera eramateko taulak	74

*El niño tiene cien lenguajes, cien manos, cien pensamientos,
cien formas de sentir, de jugar y de hablar, cien siempre
cien formas de escuchar, de sorprender, de amar,
cien alegrías para cantar y entender...*

Loris Malaguzzi

ANTECEDENTES, OBJETIVOS Y CUESTIONES / AURREKARIAK, HELBURUAK ETA GALDEGAIK

En busca de un equilibrio emocional muchas ocasiones no encontramos una estabilidad que nos ayude a expresar nuestras sensaciones. Las palabras no cumplen con su función comunicativa y nos convertimos en unos incomprensidos o en unas incomprensidas por los demás. No podemos reaccionar, ni comportarnos como lo esperaban los demás y sin saber por qué, caemos en un desequilibrio sentimental, donde la necesidad de demostrar sentimientos obstaculiza el desarrollo integral de la persona.

Conociendo esa sensación, que nos une a todos y a todas como personas, que no permite evolucionar en cualquier situación concreta, veo la necesidad de una educación emocional que aporte conocimientos de autocontrol y diversidad de expresión para poder adaptarse a cualquier necesidad comunicativa. Todos y todas somos diferentes, dos personas pueden sentir la misma emoción en el mismo momento pero eso no significa que se sientan igual; una persona necesitará expresarse de una manera según el contexto social en el que se encuentre y la otra persona tendrá la necesidad de adaptarse a otra situación. Es por ello, que en la escuela ofrecemos métodos de comunicación y expresión diferentes, que ayudan en el equilibrio de la persona. Entre esa diversidad de métodos nos encontramos con la educación estética, y en ella con la educación musical, aquella que permite despertar emociones que tenemos adentro o crear nuevas emociones.

Este trabajo denominado Trabajo de Fin de Grado (TFG) con el que opto al grado académico de Maestro/a en Educación Infantil de la Universidad Pública de Navarra (UPNA) recoge el estudio empírico de un diseño para el desarrollo de la creatividad musical desde la educación emocional en la Educación Infantil.

La propuesta estará dirigida a niños y niñas de 3 a 6 años, es decir al 2º ciclo de la Educación Infantil. Gracias a la convivencia de 2 meses y medio con niños y niñas de

una Escuela Unitaria del modelo lingüístico D¹ quise observar lo que supone la expresión musical en el comportamiento de los niños y las niñas. Me interese por observar como la música conducía o creaba situaciones que no esperábamos en un momento concreto.

De esa manera, pensé en la opción de una educación musical dirigida al control de las emociones. Pero siendo consciente de mis conocimientos sobre esta disciplina me encuentro con la necesidad de conocer métodos educativos en la educación musical; por lo que utilizo como apoyo en mi diseño el estudio del libro de texto *La Batuta Mágica*. Mediante el estudio del libro podré confirmar que lugar tienen las emociones en la música y que opciones se valoran para trabajar su desarrollo. ¿Será posible la expresión de las emociones mediante la música?, ¿la música provocará emociones que no pensábamos sentir en ese momento?, ¿podremos utilizar las emociones para el aprendizaje de otros procesos?

Para cumplir mi objetivo comenzaré desarrollando un marco teórico donde haré entender la importancia que tiene la música en la educación y en el desarrollo de niños y niñas de Educación Infantil. Después, elaboraré un apartado acerca de la creatividad musical en la Educación Infantil. Y finalmente, un último apartado describiendo la importancia de las emociones en edades tan tempranas.

Dicho esto, ¿por qué creo que este estudio tiene una finalidad en el ámbito de la educación emocional? Hoy en día gracias a diferentes estudios sabemos que un bebé reacciona dentro del útero a una gran variedad de sonidos. Esto significa que el niño o la niña reacciona a sonidos exteriores que le ayudan en su desarrollo, lo cual, el oído es uno de los primeros sentidos que comienzan a desarrollarse. De esta forma, diferentes psicólogos y psicopedagogos, como por ejemplo Kodaly y Campbell, concluyeron que la música es una habilidad comunicativa que hay que comenzar a trabajar desde el principio de la vida. Así, la música se convierte esencial en esta propuesta.

En otras palabras, la música y los sonidos son propios del ser humano y por ello está presente en todas las culturas y contextos sociales. Por ello, como podemos ver en

¹ No nombraré el nombre del centro, ni nombres que identifiquen al personal profesional o el alumnado del centro por motivos de privacidad.

uno de los áreas que define el Decreto Foral 23/2007 de Navarra, vigente en la legislación actual en materia de Educación Infantil que concreta el DCB, la música tiene relación con la socialización y un lugar en la Educación Infantil.

Por lo tanto, podemos decir que el objetivo de la educación musical no es el de crear grandes músicos, sino el desarrollo de las habilidades cognitivas sociales y afectivas, siempre y cuando la música sea el hilo conductor de éstas. De la misma manera, la habilidad de la percepción del oído es imprescindible en esta propuesta, ya que, todo proceso cognitivo se sustenta en la percepción.

Con todo lo tratado podemos concluir que la idea general de que la educación musical tiene como objetivo enseñar canciones infantiles es errónea y que tiene otras muchas finalidades. Gracias a diferentes estudios hemos podido comprobar que la educación musical en Educación Infantil desde un proceso de enseñanza-aprendizaje tiene como objetivo la formación integral de los niños y las niñas como consecuencia de la práctica de la música. Para ello es totalmente necesario percatarse de los procesos creativos y activos. Por ello deducimos que el papel de la música en la Educación Infantil tiene un lugar especial, puesto que:

Una de las concepciones de la Educación Infantil es que el niño o la niña es un ser enteramente vivo en su totalidad y social, donde la aceptación del otro, así como su convivencia, es esencial (Heilnet, 1992 y Parra Rodríguez, 2010).

Por otro lado, siendo el objetivo de la investigación diseñar una propuesta para el trabajo de las emociones mediante la creatividad musical también es necesario conocer la importancia de la creatividad en la Educación Infantil. Además, la educación de la creatividad en el ámbito musical es fundamental ya que la expresión musical pone en juego procesos creativos que el docente o la docente tiene que conocer y potenciar.

En primer lugar para comprender una de las razones de la elección de nuestros objetivos situaremos la creatividad en la educación. ¿Por qué apostar por la creatividad en la educación? La creatividad si la valoramos como una aptitud más del ser humano, concretamente, la potencialidad humana para crear y que trata de un proceso que comienza cuando algo nos inquieta, creo ver la necesidad de una

respuesta educativa, ya que se trata de responder a las necesidades y el desarrollo del alumnado.

De la misma manera, gracias a diferentes estudios como el de E. Paul Torrance², se ha deducido que la creatividad es una dimensión del crecimiento, y por consiguiente justifica la creatividad como finalidad de la educación. Quizás tengamos que volver a alguna cita de Torrance, como por ejemplo, cuando nombra como fuerzas creativas: *enfocar la esencia, ver el cuadro pero también el contexto, integrar, no perder nada del esplendor de cada cosa, poder hacer cada cosa desde diferentes ángulos, o proyectarse hacia el futuro* (Torrance E.P, 1995). Estas fuerzas ayudan a lograr un alumnado que en cada situación de la vida use una mirada propia y, en consecuencia operaciones que manifiesten el contexto habitual.

Ahora bien, sabiendo que la creatividad y la música son dos elementos que contribuyen en el desarrollo de los niños y las niñas, ¿por qué no cuestionarse la opción de una posible combinación para mejorar la enseñanza desde la educación musical? Como he dicho antes, la música contribuye en la mejora de diferentes tipos de desarrollo, además uno de los objetivos de la educación musical es el convertir la música en hilo conductor para el desarrollo de diferentes contenidos, como es la creatividad. Y como la música debe ser enseñada a partir de la actividad musical en todas sus dimensiones, la creatividad se considera parte de esta. A fin de responder la pregunta anterior, primero deberemos saber a qué se refiere la creatividad musical.

Tradicionalmente, en la enseñanza de la música, el contenido de la creatividad quedaba apartado de los contenidos del Currículo, y simplemente había presencia de conceptos teóricos instrumentales. Pero hoy en día, si partimos de que el intérprete es un creador, quiere decir que el alumnado tiene que ser capaz de procesar la creación de la interpretación. Es decir, ser capaz de procesar una obra en su interior y convirtiendo la creatividad como un camino en el proceso de la enseñanza musical conseguir un mejor producto musical.

² Estudio reflejado por Maravillas Díaz y Ana Lucía Frega en “Creatividad como transversalidad al proceso de educación musical”

De esta manera, la creatividad musical, hace referencia a la composición musical, en otras palabras a la creación de una nueva música y a desarrollar mejores medios de expresión, comunicación y recepción de la música y otros ámbitos. Mediante el desarrollo de esos medios creamos diferentes modelos de pensamiento puesto que es necesario el trabajo de un proceso de selección, opción, comparación y eliminación de información. Y en consecuencia, cómo mucha información a procesar está relacionada con la música, como puede ser interpretar los significados de sonidos descendentes o ascendentes o sonidos fuertes y suaves, los niños y las niñas podrán llegar a ser buenos compositores y oyentes. Lo cual, podemos ser creativos a la hora de interpretar, a la hora de escuchar y a la hora de valorar lo tradicional.

Con todo esto espero que este trabajo me ayude a reflexionar sobre cómo me gustaría trabajar este enfoque en la escuela. Intentado así ayudar a los niños, a las niñas y a mí misma en la expresión de emociones, que nos definen como persona. Siendo consciente de que para poder reproducir los comportamientos que me gustaría transmitir a mi alumnado tendría que deshacerme de roles como la obligación de tener que sentirnos felices todas las mañanas que llegamos a la escuela.

1. ARLO TEORIKOA 1

1.1 Musika Haur Hezkuntza etapan 1.1

1.1.1. *Musikaren eboluzioa: gerturatze historikoa musika pedagogoen ikuspegitik 1.1.1*

Gaur egungo musika pedagogiaren egoera ulertzeko lehendabizi musikaren sorburua, bere funtzioak, hezkuntza inplikazioak eta denbora zehar izandako eboluzioa aztertuko ditut, izan ere, historia garaikidea ulertzeko antzinako gertakarien ikerketaren ezagupena beharrezkoa da.

Lanaren atal honetan musikaren kontzeptura hurbilduko naiz eta musikaren historia eta musika pedagogia sorkundeen inguruko bidai laburra egingo dut, geroago, musikaren egungo egoera eta musikak Haur Hezkuntzan dituen erronkak azaltzeko.

XIX. mendearen amaieran berrikuntza pedagogikoa agertu zen, hain zuzen ere, Eskola Berriaren mugimendua. Mugimendu hori musika hezkuntza aktibo baten alde izan zen. Musika hezkuntza aktiboa, parte hartzailea, eta joko testuinguru batean garatutako prozesua izan zen mugimendu honen helburua. Horrela, *Metodo Aktiboak* izeneko berrikuntzak sortu ziren. Hauek musika sormenaren eta musika hezkuntza ludikoaren alde egin zuten lehenengo metodoak izan ziren. Hurrengo pedagogoak mugimendu honen garatzaile garrantzitsuenak izan ziren:

Maria Montessori (1869-1952): Eskola Berriko mugimenduaren kide izan zen. Musika eta ahozko hizkuntza konparatu zituen, gizaki garapenaren parte zela adierazteko. Anna Maccheroni hezitzailearen laguntzaz, haurrentzako materialak sortu zituzten, eta ez hezitzailearen lana egiten laguntzen zituztenak, baizik eta, haurrek bere kabuz eta era autonomo batean lan egiten laguntzen zituztenak. Bere ikerketa zientifikoei esker haurren ikasteko gaitasuna konprobatu zuen. Ikaskuntza hori, haurrek testuingurutik jasotzen dituzten jakintza guztiekin harremanetan jartzen zuen. Musikaren ikuspegitik, eskala diatonikoa jotzeko ezkila batzuen sorkuntza izan zen bere berrikuntza. Honekin haurren entzumen musikala lantzen zen.

El niño se concentra en aquellas cosas que ya tiene en la mente y que ya ha absorbido en el periodo previo, ya que cualquier cosa que ha sido conquistada

tiene una tendencia permanecer en la mente para ser considerada (Montessori, Education for a New World; 71)

Jacques Dalcroze (1879-1975): musikari eta antzerki gizona izan zen. Ginebrako ikasleetan interpretazio eta entzumen arazoak identifikatu zituenean musika eta gorputz-mugimendua bateratzen saiatu zen. Gorputz-mugimenduak interpretazio mailan entzumenean eragiten zuela usten zuen. Deskubrimendu honen arrakastak Europako testuinguru artistikoaren barreiatzea ekarri zuen eta 1915ean Dalcroze institutuaren fundazioa sortu zuten.

Bere metodoa hezkuntzan oinarritu zuen eta bi ataletan banatu zuen. Batetik, mugimendu fisiko harmonikoan eta naturalean oinarritu zuen. Oinarrizko gorputz mugimendu oinarritzen zen eta gorputza musikaren zerbitzura moldatzen zuen, izan ere, bere hitzen arabera, “el sentido rítmico es un sentido muscular” (Dalcroze, 1993; 15). Bestetik, musika zuen helburu, hain zuzen ere, adierazpenaren eta sentsibilitatearen bidez zentzumenak zabaltzen saiatu zen. Azkenik, erritmikaren atalari ere garrantzia eman zion, honetan hiru gune banatu zituen: erritmoa, dantza eta mugimendua.

Mugimendu musikalaren eta gorputz mugimenduaren arteko loturari dagokionez, mugimenduaren bidezko *heziketa auditiboa eta erritmika* definitu zituen. Erritmoa solfeoaren oinarri definitu zuen, eta honekin guztiarekin batera Keith Jarrekin *motrizitate globalaren* kontzeptua garatu zuen. Azkenik, norbanakoaren ahaleginaren garrantzia azpimarratu zuen, izan ere, bakoitzaren potentziala adierazten zuen horrek. Hori guztia hurrengo aipamenean ikus daiteke:

La finalidad de la Rítmica consiste en colocar a sus adeptos, al terminar los estudios, en la situación de poder decir: “yo siento” en lugar de “yo sé”; y, especialmente, despertar en ellos el deseo imperioso de expresarse, después de haber desarrollado sus facultades emotivas y su imaginación creadora. (Dalcroze, 1966; Fragmento de El Ritmo)

Kodály (1882-1967): musika herrikoian oinarritzen zen, izan ere nazionalismoaren ordezkari hungariarra izan zen. *Bartonekin* batera hungariar kantetako hitzen berreskuratze linguistikoa egiten saiatu zen. Horretaz aparte, konposizio koralean

nabarmendu zen eta 1945ean hezkuntza eta herrialdeko bizitza musikalaren berreraikitzea egin zuen.

El niño debe participar de los auténticos bienes culturales de su propia comunidad. La música folklórica es más genuina y cercana que la culta para el mundo de la niñez. Y sus formas son tan sencillas en sentimientos y mentalidad como los razonamientos del niño... (Kodály, 1993; 14)

Hauek izan ziren bere metodoaren irizpideak: ahotsa eta kantuan oinarritzea. Alfabetizazioari garrantzia ematen zion (musika irakurtzen jakiteari) eta beraz solfeoa oinarritzat jotzen zuen. Musika ezagutzen ikasteko kantua erabiltzen zuen, eta horretarako entzumenean oinarritzen zen. Ikergaiak herri musika eta herri kantak, kultura klasikoa eta folklore hungariarraren oinarriak izan ziren.

Metodoa hiru oinarritan banatu zuen: lehenengoa *solfeo erlatiboa*. Honetan tonalitate bakarra erabiltzen zuen eta kantak haurren erregistrora moldatzen zituen tonalitatea aldatu gabe. *Fononimia* bigarren oinarritzat hartu zuen, musika eskuen bidez irakurtzen ikasteko. Oinarri honen helburua haurra inkontzienteki barne entzumen afinatu batetan hezteka izan zen. Azkenik eskala edo *sistema pentatonikoa* definitu zuen. Eskala honetan 5 nota daude eta eskala zaharrena da, hain zuzen ere, musika afrikarrak oinarritzen diren eskala.

Edgar Willems (1890-1978): Dalcrozen erritmo teoriaren jarraitzailea izan zen. Bere ardatza entzumenaren garapena zen eta psikologian oinarritzen zen. Entzumen sensoriala, afektiboa eta mentala desberdindu zituen. Eta pertsonaren garapen integralaren bilaketa lortzen saiatu zen.

Nola antolatuko dugu musika haurraren hezkuntzari begira? Horrelako galderak egiten zituen. Hori zen bere kezka. Nori erakutsi behar diot musika? Zein mekanismo dituzte hurrek musika ikasteko momentuan? Galdera horien erantzunaren bila gizakia bera eta honen gaitasunak kontuan hartu zituen.

Todo el mundo tiene al menos, un mínimo de oído, y si no se puede crear musicalidad con todas las piezas, el pedagogo puede colaborar conscientemente con los fenómenos de la vida que, poco a poco, lentamente, con paciencia conducen a ella. (Willems, 2001; 161)

Entzumenaren garapena izan zuen helburu Willemsek, eta horretarako abestiak, eskala nagusia, entzumena, errekonozitzea, eta erreproduzitzea, asmakuntza, erritmoa eta metrika, irakurketa eta idazmena, eta abestiak izan zituen baliabide.

Erritmoa, harmonia eta melodia erreferentziazko elementu bezala hartu zituen eta honekin batera musikaren kontzientzia gizakian lortzen saiatu zen. Musikaren esanahia hizkuntzaren bidez ezinezkoa zela adierazi zuen, bere buruari egiten zion galdera abesti baten lehenengo 4 segundoak nola adierazi izan zen.

Musikarekiko maitasuna eta grina ikasleengan bilatu zuen eta haur guztientzat irisgarria egin zuen. Parte hartze aktiboa ezinbestekoa ikusi zuen, bai ikasleena, bai irakasleena, bai gizartearena.

Carl Orff (1895-1982): konposatzaile ezaguna izan zen. Bere obra nagusia *Carmina Burana* izan zen. Bere metodoa trilogia izan zen, hain zuzen ere, hizkuntza, musika eta mugimenduaren parametroak aztertzen zituena. Bi hitz sailkatu zituen: *Instrumentala*: orkestra eskolar bezala ezagutu zena. Gehien erabiltzen ziren instrumentuak perkusiozkoak ziren, lantzeko errazagoak baitira. Gorputz perkusioa baliabidetzat kontsideratu zuen. Eta *Elementaria*: oinarrizko printzipio pedagogikoa. Musika egiteko eta irakasteko oinarrizko elementuetan oinarrituta eta pentafoniaz lantzen du, sormena eta inprobisazioa lantzeko errazagoa da eta. 1961ean Orff institutua eraiki zuten.

Bere metodoarekin ikasleria orkestra parte hartzera bultzatu zuen. Gainera erritmoa ostinato melodikoaren eta hitzaren bidez garatu zuen eta doinua lantzeko abesti herrikoietan oinarritu zen.

XX. mendetik aurrera *metodo berritzaileak edo egungo metodoak* hasi ziren agertzen eta horien artean aipagarrienak hurrengo pedagogoak izan ziren:

Murray Schaffer (1933-): XX. mendeko konposatzaile, ekologista, hezitzaile eta ikerlari kanadarra. 1965ean ekologia akustikoaren ardatza eraiki zuen, izaki bizidunak eta soinuak erlazionatuz. Kutsadura akustikoaren aurka dago, horregatik soinuaren eta zarataren arteko desberdintasunak nabarmentzen ditu.

Bere metodoan zarata balioetsita dago eta kritikotasunari garrantzia ematen dio. Irudimen sortzailea eta musikaren adierazpena soinuaren bidez kitzikatzen saiatzen da

eta ezohiko irakaslea eraiki zuen: deskubrimendua, errebelazioa, ekintza eta ulermena zabaltzeko planteamendua garatzen zuen. Musikaren lengoiaia eta hitzezko lengoiaia harremana dutela adierazi zuen bere metodoaren bidez.

John Paynter (1944-): hezkuntza musikalaren ekarpen handiena curriculumaren berrikustea eta musika garaikidearen txertatzea izan zen. Bere metodoaren aurkikuntzan antzinako eta egungo musikaren arteko desberdintasunak ez zirela handiak izan dira. Egungo musikan baliabide gehiago daude, hala nola, telebista eta irratia. Dena den, kritikoak izaten ikasi beharra dago. Musika tonalean oinarritzen da esanez, *cuando realmente comenzamos a escuchar de una manera detallada, hallamos formas de controlar los sonidos posibilitando así la reproducción de sonidos específicos cuando los deseamos* (Paynter, 1972: 18) eta grafia berrien erabilera bultzatzen du. Horretaz aparte, *multidiziplina* jorratzen du, hau da, musika beste arte diziplinekin harremanetan jartzen du.

Gauzak horrela, musikak Espainiako Hezkuntza Sistemari 70. hamarkadako legearen ezarketa arte ez zuen bere lekua izan. Baina 1981-82 urteak arte ez zuen trataera egokia jaso. Urte horietan, arte hezkuntza 5 ordu astero jorratu behar zen eta horretarako plastika eta musika hezkuntza erabili zen. Ordu horiek garatzeko aipatutako metodoetan oinarritutako eskolak eraman ziren aurrera eta musikaren ikuspuntu praktikoari, eta musika errealitatea ulertzeari eman zitzaion garrantzia.

1990. urtean LOGSE legeak curriculumak osatzen dituen elementuak hurrengo arloetan aditzera eman zituen: *“nortasuna eta autonomia pertsonala”, “ingurune fisiko eta soziala” eta “komunikazioa eta adierazpena”*. Azken arlo honetan musikaren adierazpena, beste batzuen artean, haurraren gaitasuna garatzen duen, musikaz disfrutatzeke eta kultura bereganatzeko tresna dela adierazita dago. Bere printzipio metodologikoetan ikaskuntza esanguratsuari, eta aurreko esperientzia eta ikasketa berrien arteko harremanei ematen zaio garrantzia. Globalizazioaren printzipioa ere aipatzen da, izan ere, ikaskuntza harreman ugarien emaitza da. Hau guztia, 2 ziklotan antolatzen da, 0-3 eta 3-6 zikloetan eta ziklo bakoitzari bere Curriculum egokitzapena ezartzen zaio.

Laburbilduta, egungo Hezkuntza sistemari gehien eragin dituzten pentsamendu korronteeek psikologian XX. mendean zehar garatutako teoria kognitiboak izan dira.

Hortaz, LOGSE eta LOE ezarri arte Espainiako Hezkuntza Sistema Piaget, Vigotsky eta Bruner psikologoaren teorian oinarritu da eta Eskola Berriaren printzipio pedagogikoetan.

1.1.2. *Gaur egungo egoera 1.1.2*

1.1.2.1. *Marko legegilea: musikaren egoera Hezkuntzaren Lege Organikoan 1.1.2.1*

Marko teorikoko atal honetan Haur Hezkuntzako tutoreek eta musika hezkuntzaren espezialistek kontuan hartu beharreko marko legegilea ageri da aztertuta. Lan honetan aztergai diren guztiak 2/2006 Lege Organikoan (LOE) daude oinarrituta. Dena den, lege honek LOGSE eta LOCE utzitako gora-behera juridikoak argitzen dituen hurrengo azalpenetan LOGSE legeari buruzko aipamenak ere ageri dira.

Hezkuntzaren atal honetatik azalpenak ematen hastea egokiena dela erabaki dut; alde batetik, LOGSE (1990) legearen aldarrikapenarekin musika Hezkuntza Sistema maila guztietan erregulatu zelako, hau da, musika hezkuntza Curriculumean sartu zelako, eta LOCE (10/2002) legeak kontuan hartu ez zuen moduan, 2006ko LOE legean berriz ere musika aldarrikatu zelako. Eta bestetik, legeetan Haur Hezkuntza eta musika arloa oinarritzen diren nondik norakoak agertzen direlako zehazturik.

Bizitzaren lehenengo 0-6 urteak berezko izate tartearen kontsiderazioa egiten da. Hori dela eta, etapa hau pedagogikoki orientatzeko beharra dago, eta Haur Hezkuntzako Programa Esperimentala aurrera eramateko erabakia hartzen da. 1987ko Hezkuntzaren Erreforma Programan, LOGSE (1990) legean, etapa honetako adierazpen arloko helburu eta edukiei buruzko hausnarketa egiten da, eta Haur Hezkuntza arlo izatearen garrantzia aldarrikatzen da.

LOGSE (MEC, 1989) legedian Haur Hezkuntza zikloan errespetatu eta jarraitu beharreko irizpideak daude adierazita, hortaz, musikak Hezkuntza Sistemaren duen lekua legean azalduta ageri da.

Hezkuntza Sistemaren, *Pep Alsina*ren *El área de educación musical* liburuan agertzen den moduan, gizarte beharren eboluzioa eman eta erreforma ezarri zenez, geroago Hezkuntza Artistikoen aldaketa sakona jaso zuten. Aldaketa horietako bat formazio artistikoa hiru ikuspegi arabera antolatzea izan zen. Hiru ikuspegi hauek

errealitateko egoera artistikoa antolatzeko modu baten proposamena dira eta horiei esker inguratzen gaituzten egoera artistikoak 3 mailatan antolatu dira. Maila bakoitza Hezkuntza artistikoko gizartearen beharretara dago egokituta eta helburua behar hauen asetzea da.

Lehenengo maila *Hezkuntza Artistikoaren Oinarrizko Maila* da. Honetan, gaitasun artistikoen garapen egokia lortzen saiatzen direnak kokatuko lirateke. Hezkuntza Artistikoaren hurrengo mailetara iristeko beharrezkoak diren gaitasunak eta oinarrizko ikaskuntzak bereganatuko dira hemen, hala nola, gaitasun pertzeptiboa, adierazpen gaitasuna eta komunikatzeko gaitasuna. Horretaz aparte, arteari buruzko oinarrizko ikaskuntzak bereganatzean bakoitzak non duen interesa edota zein guneeetan duen erraztasuna ezagutuko du eta hurrengo mailako helburuak ezagutzeko prest egongo da.

Musika hezkuntza arloari dagokionez, Hezkuntza Sistema Orokorrean dago kokatuta gizarte beharrei erantzunez, lehenago aipatutako Hezkuntza Artistikoaren Oinarrizko Mailan kokatzen delako.

Laburbilduta, musika irakaskuntza prozesuaren barnean dago, hots, hizkuntza komunikatzeko modu bat da, eta LOGSE (1990) eta LOE (2006) legedietan musika hezkuntza errealitatearen adierazpen eta irudikapen bide bat da, non jasotako eskemen konparazioak eta egiaztapen bitartez errealitate horren ulermena errazagoa da.

1.1.2.2. *LOE legearen garapen arauemailea: Musika Hezkuntza Haur Hezkuntzako Curriculumean 1.1.2.2*

Hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege Organikoan (2006ko maiatzaren 3koa) xedatutakoaren arabera Nafarroako 23/2007 Foru Dekretuan Haur Hezkuntza Curriculuma osatzen duten helburuak, edukiak, metodo pedagogikoak eta ebaluazio irizpideak azalduta ageri dira.

Curriculuma ikastetxeen gida-liburu pedagogikoa da eta agertzen diren asmo horiek (helburuak, edukiak, metodo pedagogikoak eta ebaluazio irizpideak) ondo antolatzeko

hurrengo galderetan³ taldekatzea gomendagarria da (antolakuntza hau musika arloan aplikatuko dugu):

- Zer erakutsi behar dugu? Hezkuntza helburu eta edukiei egiten die erreferentzia
- Noiz erakutsi behar dugu? Helburu eta edukien sekuentziari egiten die erreferentzia
- Nola erakutsi behar dugu? Erabakitako helburuak lortzeko planifikatutako irakaskuntza-ikaskuntza jarduerari, metodo pedagogikoei, egiten die erreferentzia
- Noiz eta nola ebaluatu behar dugu? Lortutako helburuen prozesu eta emaitzen azterketa eta epaiketari, ebaluazio irizpideei, egiten die erreferentzia

Musikaren adierazpenak Haur Hezkuntzako “*Hizkuntzak: komunikazioa eta irudikapena*” arloan du bere lekua. Atal hau musikaren berezko Curriculumaren arloa aztertzerako dago bideratuta.

Dena den, hezitzaileak Curriculumaren helburuetan eta edukietan aipatzen diren soinu parametroak eta isiltasuna zer diren eta nola landu kontrolatzea gomendagarria da. Isiltasunari dagokionez, hurrekin gaudenean, isiltasun osoa lortzea ezinezkoa izango dela ulertzea beharrezkoa da. Hala ere, hurrek pertsona bakoitzaren barneko isiltasuna ezagutzea interesgarria litzateke. Honela, hurrek heurre burua entzuten ikasiko dutelako.

Soinua lau parametroei esker neur eta uler daiteke. Lehenengoa *altuera* da; ezaugarri honekin soinu agudoak, grabeak, musika eskalaren tonuak, interbaloak, semitonoak eta melodiaren eta armoniaren agerpenak ulertzen dira. Bigarrena, *iraupena* da, honi esker soinu luzeak eta motzak, musika figurak, erritmo desberdinak, isiltasunaren balorea, eta denbora gelditzeak edo bizkortzeak uler daitezke. Hirugarrena *intentsitatea* izango da, musikan azentuak, adierazpen ñabardurak eta ñabarduren arteko pausuak deskribatzen dituenak. Azkenik, *tinbrea* dago. Intentsitate eta altuera

³ Pascual Mejía, P. (2006) *Didáctica de la Música*. Barcelona: Pearson Prentice Hall

bereko soinuak desberdintzeko erabiltzen da. Baina Haur Hezkuntzan parametro hauetaz ikasiko dena hurrengo taulan laburbilduta ageri da.

Taula 1: musika parametroak eta haurrek bereganatu beharreko gaitasunak

PARAMETROAK	IKASI BEHARREKO EZAUGARRIAK
ALTUERA EDO TONUA	Agudoak eta behe-soinuak desberdindu
INTENSITATEA EDO BOLUMENA	Fuerte eta pianoa desberdindu
IRAUPENA	Luzea eta motza desberdindu
TINBREA	Soinuaren kolorea desberdindu

Antolaketa horren guztiaren zentzua helburu hauetan dago oinarrituta. Helburu horiek Haur Hezkuntza bi ziklotan banatuta daude. Lehenengoa, 0-3 urtekoen bitartekoa eta bigarrena 3-6 urtekoena. Hurrengo taulan ziklo bakoitzari ze helburu dagokion ikusten da:

Taula 2: Haur Hezkuntza etapako Curriculum helburuak

ZIKLOAK	0-3 urtekoen zikloa	3-6 urtekoen zikloa
HELBURUAK	Entzumen kontzentrazioa eta arretaren garapena	Entzumen bereizketa sustatu
	Ingurune sonoroarekiko egokitzapenean lagundu	Oinarrizko gaitasun motoreak suspertu eta garatu
	Soinuak eta ahotsak egin eta antzeman	Komunikazio musikalerako gaitasuna gehitu
	Koordinapen motorea eta gihar garapena sustatu	Nortasuna, sortze prozesuak eta musika-zaletasuna garatu
	Objektu desberdinen tinbrea ezagutu	Ahotsaren eta hitz-kantuaren adierazpena sustatu, katurako bitarte den neurrian
	Ahots gaitasuna landu	Lankidetzaz zentzua garatu eta norbere, zein besteekiko errespetua landu

Dena den, Nafarroako 23/2007 Foru Dekretuaren legeak Haur Hezkuntza 2. ziklorako musika hezkuntza helburu batzuk zehazten ditu:

- Ahotsaren, gorputzaren, eguneroko objektuen, eta musika-tresnen soinu ahalbideak ezagutzea
- Soinuak musika jo eta sortzeko erabiltzea

- Ingurune natural eta sozialeko soinuak ezagutu eta haien ezaugarriak eta oinarritzko kontraste batzuk (luzea eta laburra, ozena eta leuna, zorrotza eta grabea, ...) bereiztea
- Inguruneko musika obrak modu aktiboan entzutea. Kantak interpretatu, musika-jokoetan aritu eta dantzatzeko jardueretan modu aktiboan parte hartu eta gozatzea

Helburu horiek guztiak, lehenago aipatutako moduan, Curriculumeko 3. arloan daude kokatuta, hain zuzen ere, *“Hizkuntzak: komunikazioa eta irudikapena”* arloan. Hala ere, Curriculumeko beste 2 arloekin harreman zuzena daukate, eta hauek barneratzeko musikaren hezkuntzak umeen garapenean dituzten ekarpenak aipatu beharra dago.

Alde batetik, *“Nork bere buruaren ezagutzea eta autonomia pertsonala”* arloarekin dagoen harremana azalduko dut. *Nia* eraikitzekeo prozesuan gorputza oinarritzko elementua da, inguruarekin harremanetan jartzeko orduan umearen erreferentzia puntua delako eta jolasteko, adierazteko eta ikasteko tresna delako. Gorputza esperimintatzeko eta aztertzekeo erabiliz honen gaitasunak eta mugak ezagutzen dira eta pixkana-pixkana nork bere buruaren ezagutzea eta autonomia pertsonala bereganatuko ditu. Musikak, egoera hauek garatzeko gorputz adierazpen eta adierazpen musikalak eskaintzen ditu, izan ere, *nia* garatzeko orduan gorputzaren gaitasun soinudunak eta mugimendua ezagutzea ezin bestekoa da.

Eta bestetik, *“Ingurua ezagutzea”* arloarekin dagoen harremana nabarmena da, izan ere, *“nork bere buruaren ezagutzea eta autonomia pertsonala”* ingurutik eta inguruko pertsonetatik bereiztea ezinezkoa da. *“Inguruaren ezagutza”* arloan manipulatzeko eta aktuatzekeo aukerak egon behar dute, hala nola, musikaren arloari begiratuta, harremanak aberasten dituzten jarduerak daude. Adibidez, taldean abestea, dantza, instrumentuen bidezko adierazpena, eta abar. Horretaz gain, espazio-denbora nozioak lantzekeo aukera dago. Musika garatzen den espazioaren arabera eta denbora iraupenaren arabera ondorio akustiko batzuk egongo dira.

Bestalde, helburu horiek guztiak lortzekeo Haur Hezkuntzako Curriculumak edukien bidez zehazki nola erakutsi behar den adierazten du. Musikak *“Hizkuntzak:*

komunikazioa eta irudikapena” arloan duenez bere lekua, arlo honetako musika eduki multzoak zeintzuk diren jakin beharra dago.

- Arte hizkuntza. Musikari dagokion multzoa da, beraz, edukiak zehatz-mehatz aipatu beharra dago
 - Ahotsaren, gorputzaren, eguneroko objektuen eta musika tresnen soinu-ahalbideak ezagutzea
 - Soinuak musika jo eta sortzeko erabiltzea
 - Ingurune natural eta sozialeko soinuak ezagutu eta haien ezaugarriak eta oinarritzko kontraste batzuk (luzea-laburra, ozena-leuna, akutua-apala) bereiztea
 - Inguruneko musika obrak modu aktiboan entzutea. Kantak interpretatu, musika-jokoetan aritu eta dantzatzeko jardueretan modu aktiboan parte hartu eta gozatzea
- Gorputzaren hizkuntza

Gauzak horrela, eskolan musikarekin sortzeak soinuekin jolastea, hotsarekin, objektu soinudunekin, musika instrumentuekin esperimintatzea eta entzumenarekin, memoriarekin, sormenarekin lan desberdinak egitea suposatzen du, musika bizipen atseginak sortzen diren bitartean.

1.2. Musika sormena 1.2

1.2.1. Musika sormenaren eboluzioa: gerturatze historikoa pedagogoa desberdinen ikuspegitik 1.2.1

Sormenak gutxika gizartean paper garrantzitsua bereganatzen hasi du ikerketa desberdinen ondorioz. Horien artean Guilford-en diskurtsoa aipagarria da, izan ere, honi esker sormena kontzeptuaren ikerketa askoren aztergai bilakatzea lortu zen eta eremu desberdinetan sormenaren beharra frogatu zen, hala nola, hezkuntzan.

Historian zehar sormena gaitasuna miresteko zerbait izan zen. Pertsona guztiek ez zuten gaitasuna zela pentsatzen zen eta pertsona eta Jainkoa desberdintzen zuten ezaugarria zela esatera iritsi ziren. Beraz, sormenarekin gizartearen eta indibiduo

desberdinen botereak edota ahalmenak errealitatearen kanpo eramaten zituzten. Horretaz aparte, sormena ohizkotasunaren kanpo agertzen zen gaitasuna zela ziotenez, eromenarekin harremanetan jartzen zuten.

60. hamarkadan musika hezkuntzak aurrerakuntza handia sumatzen du musika pedagogia aditu desberdinei esker. Horien artean Payter, Schaffer, Denis, Self, Delalande eta beste batzuk daude. Helburua, hezkuntza mailan esperimentazio soinudunaren eta musika esperientzien bidez, banakotasuna eta sormena sustatzea lortzen duten metodoak aurkitzea izan zen. Bide horren bitartez, pedagogo hauek musika ikaskuntzarekiko interesa eta motibazio piztea lortu nahi zuten, baina, sormen talentua piztuko zuten jardueren bitartez.

Horrela, sormenaren garrantzia zalantzan jartzen duen inor aurkitzea lan zaila da, izan ere, Hezkuntza Sistema gehienetan haurren garapen integrala lortu nahi da eta Paynterren (1999) esanetan horrek banakako metodologia egokienei esker sormen ahalmena estimulatzea eta esnatzea suposatzen du.

Halaber, pedagogo eta ikerlari desberdinek musikarenganako hurbilpen egoki bat lortzeko musikaren bidez garatzen diren jardueren beharra nabarmentzen dute eta materialaren esploratze eta ezagueraren beharra azpimarratzen dute. Era berean, Curriculumaren antolaketa aurrera eramateko ikasleen banakako sormena kontuan hartuko da. Horrekin guztiarekin, hautemate eta entzumen, adierazpen eta produkzio, eta konposizio eta konposaketa arteko harremanak musika ikuspegi berritzailearen ezaugarriak bihurtzen dira. Modu horretan musikako gelan musika sormena aurrera eramateko proposamen desberdinak⁴ garatzeko aukerak sortu zituzten, hala nola:

Spectrum proiektua (2000; 2001) : Howard Gardnerren Jakintza anitzen teoriatik abiatutako proposamena da eta Gardnerrez gain, Feldmaen eta Krechevskyk parte hartu zuten. Haur Hezkuntzara eta Lehen Hezkuntza etapako lehenengo zikloetara dago bideratuta. Eta Curriculuma eta oinarrizko 7 materiak lantzeko hautazko ikuspegi bat eskaintzen du.

⁴ Fundamentos Musicales y Didácticos en Educación Infantil liburuan, (María Elena Riaño eta Maravillas Díaz koordinatzaileena, 2006: 68) musika hezkuntzan eragina izan duten pedagogo garaikideen sormen proposamenak ageri dira

Proiektua hiru ataletan dago antolatua, lehenengoak *Haur Gaitasunen Eraikuntza* du izena. Musikak pertzepzio, produkzio eta konposizio garapenean duen garrantzia azpimarratzen da.

- Pertzepzioan
 - Dinamika (fuertea eta suabea) sentikorra da
 - Konpas eta irizpide erritmiko sentikorra da
 - Tonua diskriminatzen du
 - Musika estiloak identifikatzen ditu
 - Instrumentu eta soinu desberdinak ezagutzen ditu
- Konposizioan
 - Tonu zehatza mantentzeko gai da
 - Konpasa eta irizpide erritmiko zehatzak mantentzeko gai da
 - Instrumentu bat jotzean adierazpen malgua erakusten du
 - Soinuen eta konposizio desberdinen ezaugarriak gogora eta erreproduzi ditzake
- Konposaketa
 - Oinarrizko konposaketak egiten ditu; hasierako eta bukaerako ezaugarri batzuk kontuan hartuta
 - Oinarrizko nota sistema sortzeko gai da

Proiektuaren bigarren atalak *Ikaskuntza Jarduerak* Haur Hezkuntzan du izena. Sortze, interpretazio dramatiko eta entzute jarduerak aurrera eramanez haurrak musika munduan sartzen ditu atal honek. Jarduerak ez dute musika hezkuntza eskatzen, arloan aditua izanik hezitzailea metodoa erabiltzeko gai izango da. Atal honetan hezitzaileaz aparte gurasoek eta musika espezialistak parte hartzea ahalbidetzen du.

Proiektuaren azken atalak *Haur Hezkuntza Ebaluazio Manuala* du izena. Jarduera musikalen kontzeptua lortzera dago bideratuta, hain zuzen ere, haurren sentsibiltate eta trebetasun nabariak biltzera.

Musika pedagogia berriek musika ulermena garatzen hasteko orduan hurrek bizitako aurreko esperientzietan edota bizipenetan oinarrituta dute abiapuntua eta ez hezitzailearen azalpen deskribapenetan. Pedagogia hauek ezagutzeko, hau da, soinu esperimentazioa lortzeko jokoan oinarritzen diren pedagogia hauek ulertzeko 3 pedagogoen metodologia ezagutu beharra dago.


Lehenengoak Murray Schafer (1933) du izena. Schaferren proposamen pedagogikoak esperimentazioari, saiakerari eta sormenari ematen dio garrantzia, beti ere, pentsatzen ikasteko, nor bere buruari entzuteko, eraikitze eta ideiak eta proiektuak garatzeko gaitasunak era autokritiko baten bidez garatzen ikasteko. Pedagogo honen *“Hacia una educación sonora”* (1994) obrak entzumen eta produkzio soinudunak lantzeko jarduerak eskaintzen ditu. Horietako bat isiltasuna lantzeko dago bideratuta. Isiltasuna zer den galderaren bidez umeen sortzeko gaitasuna lan daiteke eta demostratu zuen. Eta horretaz aparte, umeen sormenak testuinguru sozialetik edota kulturaletik jasotzen duen kutsadura baieztatu daiteke. Proiektu hau sormena kontzeptu berritzailetik lantzeko dago bideratuta, hau da, sormena guztiok dugun trebetasuna da eta hezkuntza testuinguru eta hezitzaile eta ikasleen arteko erakuntza interaktiboan oinarritzen da.

Bigarren pedagogoa François Delalande (1941) da. Musika eremuan teknologia berrien garrantzia adierazten du. Esaterako, ordenagailuari esker instrumentuen entzumen lanketa sakonaren eta musika konposaketaren praktikak. *“La Música es un Juego de Niños”* liburuan elkarrizketa desberdinak biltzen ditu, horien artean, Jack Vidalek pedagogo honi egindako elkarrizketa ageri da eta Elektroakustika musika aipatzen du. Delalanderen iritziz, hurrek gelan bizi duten egoera musika bulego batean ematen den esperientziaren antzekoa da. Hurrek eskura dituzten baliabideen bidez musika sortzeko aukera guztiak aztertu eta sortarazten dituzte.

Azkenik hirugarren pedagogoa John Paynter (1944) du izena. *“Sound and Silence”* (1975) liburuan, haurrak soinu, forma artistiko desberdinak erabili eta sormenaren bitartez bere musikak sortzeko gai direla erakusten du. Eta *“Sonido y Estructura”* (1999) liburuan ikasleriarekin lan egiteko 4 proiektu aurkezten ditu. Hirugarrenean proposamen interesgarria aurkeztu du haurren musika sormena lantzeko. Umeak

soinu desberdinez daude inguratuta eta hauek musika sortzeko hobe ezinak dira. Hurrengo galderak proposatuta musika sortzera bideratuko diegu hurrei:

- Zenbat soinu sor daitezkeela uste duzue gela batetan dagoen zurezko material guztiarekin?
- Antzeko soinuak aurkitu badituzue, horiek elkartu eta soinu interesgarriena duena aukeratu
- Soinu horiek sortzeko asmatzen dituzuen modu guztien zerrenda egin: denak elkarrekin, bereizirik, bi soinuen arteko eztabaida soinu fuerteak eta suabeak erabilita...
- Talde batek aurkitutako soinuekin zerbait berria sortzea eta beste batzuk interpretatzea.



Irudia 1 Swanwick eta Tilman Musika Garapena Espirala (1991)

Baina, musika ikaskuntza-irakaskuntza prozesuan aldaketa suposatu duen metodoa Keith Swanwick eta “Musika Garapena Espiral Modeloa”⁵ izan zen. “*Music, Mind and Education*” (1988) obran University of London unibertsitateko dekanok honek musika esperientzia naturalaren ikerketa jasotzen du. Bi proposamen aipagarri sortu zituen. Batetik, “*Teaching Music Musically*” (1979) obran, musika forma sinboliko baten ikuspegitik azaltzen du. Musika praktikak, arlo kulturean eta edozeinen testuinguruan harreman sozialak sortzeko bidea dira.

Eta bestetik, Swanwicken arabera, indibiduo baten adimen garapena 4 dimentsiotako estruktura batetan kokatuta dago. Espiral honek irakaslea helburu formulazioan laguntzen du eta musika hautematearentzako ebaluazio irizpide bezala erabil daiteke.

⁵ Fundamentos Musicales y Didácticos en Educación Infantil liburuan, (María Elena Riaño eta Maravillas Díaz koordinatzaileena, 2006: 74) hezkuntza musikalaria egindako ikerketa deberdinen ekarpenak ageri dira

Gainera espiralak, musika garapenean garrantzia duten beste 8 modu ebolutiboak hartzen ditu bere barne, hala nola, sensoriala, manipulatioa, pertsonala, herrikoa, espekulatiboa, hizkuntzako, sinbolikoa eta sistematikoa. Azkenik, imitazioa, sormen jokoak, metakognizioa eta menperatzea intentzio basikoak dira.

Proposamen hauek hezkuntzaren ideia berritzaileak izatea baino, musika hezkuntzaren adin desberdinetan proiektu integrala suposatu dute, proposamen guztiak ikerketa praktikoetan baieztatu dituelako.

1.2.2. *Musika sormena kontzeptuaren gerturatzea 1.2.2*

Egun, sormena pertsona orok neurri handiago edo txikiago batean dugun gaitasuna dela jakin izan ahal da eta prozedura jakin baten ondorioz agertzen dena era bai. Gervillak (2003:73)⁶ sormena zer den eta zer ez den bildu zuen:

<p>SORMENA DA:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Pertsona guztiek garatu beharreko gaitasuna ▪ Arlo guztietarako beharrezko gaitasuna ▪ Arlo pertsonalaren ezinbesteko ahalmena ▪ Bide berriak ahalbidetzen dituen baliabide motibatzailea 	<p>SORMENA EZ DA:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Ahalmen elitista bat ▪ Soilik artisten gaitasuna ▪ Soilek lan arloan erabil daitekeen ahalmena ▪ Haurrentzako baliabidea edo helduen zaletasuna
--	---

Hala ere, sormenaren inguruko definizio zehatz bat sortzea oso zaila da, izan ere, sormena gizakiak berez duen jokabide konplexu bat da eta gizarte garapenarekin dagoenez harremanetan, honen beharren arabera garatuko da eta denboraren poderioz berreraikiz joango den gaitasuna da. Horretaz gain, aurkitzen garen gizarte testuinguruaren arabera, sormena gauza bat edo bestea izango da, hau da, sormena zer den ez da gizarte testuinguru guztietan berdin ulertuko.

⁶ Bernal, Vazquez, J. idazlearen *Aprendizajes musicales creativos en la escuela. "Ideas musicales" y desarrollo de la creatividad* lanan aipatutako ikerketa


Dena den, sormenari buruzko definizioa egiteko orduan komunezko ezaugarri batzuk errespetatu beharko dira beti: batetik, Landauk (1987) esaten duen moduan, pertsonak orok sormena gaitasuna du bere baitan; bestetik, sormenak berrikuntza bati egiten dio erreferentzia, beti ere, beste faktore batzuen existentziaz sortzen denean, gainera, sorkuntza balio handiko zerbait da, hau da, sortutako hori sortu duen pertsonarentzat edo gizartearentzat erabilgarria izan behar du. Azken bi horiek, Romok (1997) adierazi zituen. Eta azkenik, sormena bizitzaren arlo guztietan agertzen da.

Beraz hau guztia ikusita, sormena zer den definitzea ez dela gauza erraza ondorioztatzen da. Horrenbestez, hezkuntzari begira, sormena lantzeko proposamenak egiten ditugunean, haur guztiek duten gaitasuna dela eta gure gelako haur aniztasunari, ikastetxearen testuinguru sozialari eta momentu jakin bateko egoerara egokitu beharko garela esango dugu. Sormenak egungo gizartean bere kokalekua bereganatu du eta hezkuntzak gaitasun honenganako beharra nabaritu du, sormena pedagogia berrien gako bilakatuz.

Ikusi dugun moduan, sormena eta sormena garatzen duen heziketa XIX. mendetik, kezka izan dira, batez ere, berrikuntzaren alde egiten duten hezitzaile eta pedagogo askorentzat. Orain arte, Euskal Herrian egindako lana kontuan hartu beharra dago sormenaren lanketa hau hezkuntzan sartzeko, izan ere, haurren askatasunean, mugak barne, oinarritutako irakaskuntzak lortu dira, eta horiek sormena gaitasunaren lanketa errazten dute. Honekin batera, sormenaren garrantzia beste arlo askotan nabaritu dela aipatu beharra dago, esaterako, politikan, ekonomian eta berrikuntza askoren oinarrietan.

Gauzak horrela, sormena Gardner-en (1995: 3) *Adimen Anitzaren* teoriara⁷ eramango dut, musika eta sormenaren arteko harremanari zentzua emateko. Teoria honetan, kompetentzia kognitiboa gaitasun talde bat bezala ageri da definitua, hortaz, gizakiaren gaitasun guztiak 7 taldetan banatzen ditu; horien artean, musikak bere adimen propioan dago antolatuta.

⁷ Berral, Vázquez, J.; Gallardo, Vigil, M.A. Medición de la creatividad en la educación musical escolar. Universidad de Granada



Irudia 2 Musika Osagarriak

Modu horretan, musika sormena lantzeko adimen mota bat denez eta adimena emateko lehenengo pausua sentazioen antzematea denez musikarekin sormen entzumena harremanetan jarriko dugu. Horretarako, soinu bat entzun eta gero aditzen ikasi beharra dago, geroago soinuaren bidez sentimenduak edota emozioak adierazten ikasteko. Eta behin, entzundakoa diskriminatzen eta baloratzen ikasita dagoela musika sormena landu ahalko da, adierazpen askatasuna, entzumen eta estimulazioaren bidez. Beste hitzetan, musika soinu desberdinez osatuta dagoenez, musika sortu ahal izateko musikariak soinuaren ezaugarrien diskriminazioa eta aukeraketa egin beharko du; hain zuzen ere, altuera, intentsitate, iraupen eta tinbre diskriminazioa. Gainera, haur guztiak desberdinak dira eta estimulu berak erabili arren, adierazpen edota emaitza desberdinak lortuko dira.

Gainera, jakinda haurra txikia denetik musika jarduerari esker sortze esperientziak sortzeko gai dela, Martenot-ek (1993:85) esan zuen moduan, musika sormenaren bidez musika lengoaia ere landuko da, hau da, musika elementuak musika sortuz erabiliko dira.

Baina, ideia oso bat garatu eta sortu arte prozesu batetik pasatuko da Howarden (2000:9) ikerketetan ondorioztatu zen bezala. Ideia bat erritmo, akorde, melodia edota

horien nahasketarekin adieraz daiteke, baina hasieran adierazpenak urrunerago iristeko prest egon behar du, era horretan eta elementu desberdinen elkarketari esker musika lan bat sortzera iris daitekeelako.

Beraz, ideia berrien sorkuntza musikalera pentsamendu, sentimendu, emozio, edota ideia bat musikaren bidez adierazten denean iritsiko dela esan daiteke. Ildo honetan, lehenago esan dugun moduan, musikari bere adimena egokitu zaio, baina sortutako horren itxuraren arabera (antzematea, adierazpena, sormena, ...) beste adimen mota batzuk nabarmenduko dira (gorputz-zinetikoa, interpersonala,...).

Laburbilduta, musikak gizakia lagundu du denboran zehar eta Bernal eta Calvoren (2000) hitzetan musika historian zehar gizakiak adierazteko eta komunikatzeko hizkuntza unibertsala da, eta ondorioz, umearentzako energia, jarduera eta mugimendua da.

Baina, zeintzuk dira 0-6 urteko haurren garapenean ematen diren garapen onura horiek?⁸

- *Garapen linguistikoaren ekarpenak:* musikak hizkuntza baten ikaskuntzan laguntzen du. Musikaren atal garrantzitsua abestiak dira, eta hauek hitz batzuetaz daude osatuta. Hortaz, hiztegi, gramatika eta ahoskera egoki baten beharra dago. Gainera, abestien bitartez gai jakinak eta hauen ezaugarriak lantzeko aukera dago.
- *Garapen kognitiboaren ekarpenak:* musikan era egoki batetan ikasten ikasteko elementuak topa ditzakegu. Adibidez, isiltasuna eta kontzentrazioa.
- *Garapen psikomotorraren hobekuntzak:* musikak eta mugimenduak harreman itxia dute. Modu honetan, musika lantzerakoan mugimenduaren lanketa ageri da. Esaterako, musikari esker orientazioa eta espazio eta denboraren arteko harremana lantzen da.
- *Garapen emozionalaren ekarpenak:* adin goiztiarretatik musikarekiko harremanak mantenduz gero, garunaren garapena emateko aukera dago. Esan

⁸ Pascual, Mejía, P., 2006, Didáctica de la Música, II. partea: Fundamentación psicopedagógica liburuan oinarrituta

nahi dut, abestien entzumenari, kantatzeari, ikaskuntzari, irakurketari, konposizioari, eta ulermenari esker gaitasun desberdinak lantzen dira. Honek guztiak, komunikazioaren, komunikazio estilo desberdinak ikasteko beharraren eta emozioen adierazpenaren garapena ahalbidetzen du. Beraz, originaltasuna eta sormena garrantzia dute.

1.2.3. *Musika adierazpenaren garapen psikologikoa Haur Hezkuntzan 1.2.3*

Atal honetan psikologia oinarriak ageri dira azalduta, hain zuzen ere, musikaren antzematea eta produkzio garapena adinaren arabera antolatua ageriko da. Modu honetan, proposamenak antolatzeko orduan, adin bakoitzean jarduera edo proposamen bat prestatzeko orduan zein gaitasun eta noraino gara daitekeen jakingo dugu. 3-6 urtekoen garapena azalduko dut, geroagoko proposamena adin horretara egongo baita bideratuta.

Arlo honetan egindako ikerketa desberdinak daude, batzuk funts teorikoetan oinarritutakoak dira eta beste batzuk ordea, ikerketa desberdinetan jasotako datu praktikoetan. Dena den, badaude ikerketa horiek oinarri teorikoetara hurbiltzen hasia direnak, hala nola, Dowling (1982) adituaren errebisiora: *informazio melodikoaren eta bere garapenaren prozesamendua*. Errebisio honetan, melodien antzemateko eta produzitzeko estruktura kognitiboak eta estrategiak denboran zehar aldatzeko duten gaitasuna informea dago jasota.

Bestetik, Shuter-Dyson eta Gabriel (1981) edota geroago Hardgreaves-en (1988) sintesietara ere hurbiltzen dira. Honetan musika garapenaren une garrantzitsuenak daude jasota 0-6 urteen bitartean, berak 17 urteko adina arte jaso zituen arren.

Taula 3: Shuter-Dyson eta Gabrielen arabiarako (1981) 0-6 urtetako gaitasun musikalen garapena

ADINA (URTEAK)	GAITASUNA
0-1	Soinuetara erantzuten du
1-2	Esponetaneoki musika sortzen du
2-3	Entzundako kanten letrak errepikatzen ditu, afinatzeko gaitasuna txikia izan arren
3-4	Melodia baten antolaketa orokorra antzematen du; instrumentu bat ikasiko balu, entzumen osoa garatuko luke
4-5	Altuera erregistroak diskriminatzen ditu; erritmo sinpleak imitazioaren bidez errepikatuko ditu
5-6	Fuerte eta suabea desberdintzen ditu. Eskema melodikoetan eta erritmikoetan "berdina" eta "desberdina" diskriminatzen ditu

▪ **Haur Hezkuntza 2. Zikloa: 3-6 urte**

3-4 urteetan aldaketa sakonak nabarmendu ez arren, dantza mugimenduak joko sinbolikoan erabiltzen hasten dira. Musikari esker sortutako edozein erantzun, hezkuntza balore batetan bilakatuko da, erantzun guztiak, ideien eta sentimenduen adierazpen eta komunikazio bideak izango baitira.

Hori horrela, Moogek 3, 4 eta 5 urteetako hurrek musika entzutera eseriko zirela ondorioztatu zuen bere ikerketan. Horrenbestez, musikaren bidez, jarduera anitzak sortzeko aukera dago, horien artean, sormen jokoa eta harreman sozialak errazten dituztenak.

Taula 4: Moogen (1976) ikerketaren emaitzak

Adina (urteak)	Erantzun motak
Sabelean eta jaio berriak	Musikala ez diren soinu erantzunak: soinu frekuentziak desberdinu
3-6 hilabete	Musikalak diren erantzunak agertu: kulunka erritmoak
8-12 hilabete	Musika ahoskera agertu: zizakadura hutsa eta zizakadura musikal estruktura erritmiko sinpleekin
12-18 hilabete	Dantza mugimendu saiakerak: oinak, burua, orpoak, ... mugitzen dira.
18 hilabete-2 urte	Lehengo hitzen agerpenekin, abesti errepikapenak etorriko dira eta mugimendu kontzientek: ibili,dantzatu, salto egin...
3-4 urte	Musika eta joko sinbolikoaren erabilera, edo abesti dramaren momentua: gaitasun erritmikoetan sinkronizazioa ageriko da eta 3-4 elementuko erritmoak adierazteko gai izango da. Neurri desberdinak ulertuko ditu (luzea eta motza)
4-5 urte	Sormen jokoaren eta harreman sozialen eragina: kantak eta dramatizazioa erraz erabiliko dira, hitzen musika erritmoa kontrolatzeko gai da. Intentsitatea eta abiadura kontzeptuak ez ditu desberdintzen baina, denbora eta tonua bai. Melodia desberdinak identifikatzen eta memorizatzen hasiko da
5-6 urte	Nork bere buruaren garapenari gutxi falta zaio garatzeko, ondorioz gorputz atal desberdinak koordinatzeko aukera dago. Abesteko orduan afinatuta egongo da, eta tonu gutxiko abestiak sortzeko gai izango da, espresuki, sol la eta mi tonukoak

1.2.4. *Haur Hezkuntzako Musika Gela 1.2.4*

Musikak eskolan esperientzia artistikoa suposatu behar du. Hezitzailearen musika eta didaktikak musika esperientziak horiek aurrera eramango ditu eta horretarako emozionalki irekita egon behar dugu hezitzaile garen aldetik.

Gela antzezte hizkuntzaren arabera antolatzen bada, hurrengo tripodea eraikitzen da:

- Eszenografia: gelako testuinguruaren eta elementuen antolaketa
- Eszenan jartzea: baliabide eta material didaktikoen bidez garatzen dena
- Joko eszenikoa: musika ekintzetan eta joko dramatikoan oinarritutakoa, hezitzaileak eramango du aurrera

Horretaz aparte, Haur Hezkuntzaren etapa bakoitzeko haurren ezaugarriak kontuan hartuko dira gelaren antolaketa prestatzean. Adin bakoitzaren ezaugarrien arabera eta haur taldearen beharren arabera antolatuko da gela:

- **2 eta 3 urteen tartea**

Eskolen denbora 30 minutuetara luzatzen da eta jokoak eta jarduerak haurrek eskatzen dituzte.

Dinamika ludikoak eskoletan bere lekua izaten jarraitzen dute, baina saioak antolakuntza organikoago, egonkorragoa eta aurreikusgarriagoak dira. Bizitzaren momentu honetan haurrak beraien pentsamenduak, iritziak, eta preferentziak konpartitzen hasiko dira, eta jokoak abestiekin konbinatzeko gai dira.

Garapen erritmokoari dagokionez, ikerketa desberdinak egin dira, eta haurrek duten pulstu sinkronia adierazten da, hau da, musika ekintzaren bidez jarduera erritmiko desberdinak egiteko gaitasuna (Malbran, 2000). Sinkronia hori fase desberdinak ditu:

- Fase difusoa: haurrak ezin du musikara egokitu, musikarekiko erantzuna lekuz kanpoko da, hau da, musika entzungo ez balu bezala.
- Fase fluktuatzaile: haurra aurreko fasetik ateratzen hasten denean emango da eta zehaztasunaren bila hasiko da. Horregatik fase fluktuatzailea esaten zaio, batzuetan erritmoa jarraitzea lortuko du eta beste batzuetan ordea, ez.
- Fase zehatza: haurrak abiadura eta ezaugarri desberdineko musika pasarteak daukaten erantzun sinkronikoak eratzeko gai dira.

- **4 eta 6 urteen tartea**

Etapa honetan lan errutinak eta eguneroko bizitzaren denborak kontsideratzen dira. Gela bakoitza mundu bat da, haurrek aukeratzeko eta erabakitzeko gaitasuna lortu dutelako, eta gustukoen dutena ezagutzen dutelako, hori dela eta, gela bakoitzean testuinguru bat sortuko da.

Musika gaitasunei dagokionez, erantzun nabarmenagoak ageriko dira, bai melodiari dagokionez, bai erritmoari dagokionez. Lidergoak ere agertzen hasiko dira eta talde txikietan antolatzeko gai izango dira haurrak.

Bestalde, sormen jokabideak agertuko dira. Haurrak ezaugarri kanonikoak dituzten erantzunak emango dituzte, beste hitzetan esanda, inprobisatzeko jarduerak proposatzean, *enkulturazioari* (haurrek beraien testuinguru kulturaletik bereganatzen dituzten jokabide ereduak) esker lortutako jakintzetan oinarritutako erantzun musikalak eraikiko dituzte. Esaterako:

- Aurreko bertsoekin errimatzen dituzten hitzen bilaketa
- Amaitu gabeko melodiak ixteko bukaeren bilaketa
- Proposamen erritmiko eta melodikoetan, beste proposamen batzuen sorkuntza
- Hasierako konpasak entzunda zein abesti den asmatzea
- Hezitzailearen papera hartzea

1.3. Emozioen Hezkuntza 1.3

1.3.1. Musika eta emozio adierazpenaren arteko harremana 1.3.1

Atal honetan Haur Hezkuntza etaparen 2. zikloan emozioak lantzeko garrantzia azalduko dut, izan ere, etapa hau haurren garapen integrala garatzeaz arduratzen da eta emozioak garapenaren isla direla esan daiteke.

Gizakiak, barruan duen hori ateratzeko beharra du betidanik; gizarte bakoitzaren kulturaren atal garrantzitsuenen artean, musika dago. Musika jarduera testuinguru desberdinetan gara daiteke, horren ondorioz, musikak gizakiaren bizitzan funtzio desberdinak bereganatzen ditu, hain zuzen ere, lanbidetik aisiaraino bidaiatzen du eta horrela gizakiak emozioak adierazteko eta komunikatzeko musikari bihurtzeko gaitasuna dauka (Paul Michael, 1972)⁹.

Emozioak lantzeko arrazoen artean eduki irekiak eta etorkizunean duen baliagarritasuna aipatu beharra dago. Pertsonaren osotasunari garrantzia ematen dio emozioen lanketak. Modu honetan, beste eduki batzuen artean, pertsona bera eta pertsonaren oinarri diren balioak lantzea posible izango da. Bestetik, ikasleek barnean

⁹ Lorente R. Expresión musical en preescolar y ciclo preparatorio (Madrid, 1981: 16)

dituzten sentsazioak, sentimenduak edota emozioak adierazten ikasiko dute emozioen hezkuntzaren bidez, hau da, bizitzan ematen diren aldaketek sortzen dituzten emozioei aurre egiten ikastea da helburu hezkuntza honetan.

Emozioek gainontzeko edukiak bezala, Haur Hezkuntzako Curriculumean bere papera dute. Berdintasuna, lehia izaerarik gabeko jarduera eta norbera bere buruarekin eta gorputzarekin ondo sentiaraztea sustatzen dituzten metodologiaren beharra ageri dira aipatuta. Baina, horiek aurrera eramateko orduan gelaren konfiantza giroa garrantzi handikoa izango da, haurrak seguru sentitu beharra dute barnekoa kanpora ateratzeko. Eta ezagutzak ematen du konfiantza; eta ezagutzeko, konfiantza sentitzeko, irekitzeko eta adierazteko, bakoitzak bere denboraren beharra dauka. Horretaz aparte, irakaslea eta zerbait gehiago izaten saiatzeak lagunduko du emozioak lantzeko orduan, hau da, hurrengana hurbiltasuna erakustek segurtasuna sortarazteko aukera emango du eta hezitzailea izateaz aparte laguntzeko eta beraien arazoak edo zalantzak konpontzeko dagoela erakutsiko du.

Emozioen hezkuntza antolatzeko orduan 5 ardatz¹⁰ kontuan hartzea gomendagarria da, helburu nagusia emozio horiek komunikatzen eta adierazten ikastea denez, lehendabizi prozesu bat eman beharra dago emozioak kontrolatzera iritsi arte. Kontuan hartuko da hurrek erritmo desberdina izango dutela ardatz horiek garatzeko orduan, baina hori modu positiboan baloratzen saiatuz gero hurrek besteengatik ikasteko aukera emango zaie, hain zuzen ere, besteen esperientziak entzunez eta adieraziz euren biografiarekin edo ingurukoarekin lotuko dute.

- Kontzientzia emozionala edo sentitzen dituzten emozioak identifikatzea: haurren sentitzen dudana jabe izan dadin emozioei izena jarriko zaie
- Emozio positiboak zein negatiboak kontrolatzen ikastea
- Nia edo autonomia emozionala lantzea
- Emozioak komunikatzen eta gizarteratzen ikastea
- Bizitza positiboki hartzen ikastea

¹⁰ *Nafarroako landa eremuko eskolak: Txikitutasunak elkarturik* Hik Hasi aldizkariaren 158. zenbakia (2011)

Horrenbestez, hezkuntza artistikoak emozioen hezkuntzarekin duen harreman esanguratsua nabarmendu beharra dago, izan ere, bi hezkuntza horiek haurren garapen integralean duten eragina sormen ahalmena garatzeko ezinbestekoak dira. Hezkuntza artistikoa erabilia hurrek bere emozio erlazioak adierazten dituzte, eta kasu honetan adin gazteetatik musika erabiltzen hasita inguruan harremanetan jartzeko eta garatzeko bidea bereganatzen hasten dira, sormen inizatiba erabilia.

1.3.2. *Emozioen Adimena Haur Hezkuntzan 1.3.2*

Goleman-ek (1995)¹¹ emozioen adimenaren beharra erakusten du haurren garapen integralean. Emozioen adimenari esker, pertsonon bizitza zoriontsua ziurtatzen da, izan ere, norbanakoaren ongizatea eta ingurukoekin ondo egoteko gaitasuna da.

Baina, zer ulertzen dugu emozioen adimenari buruz? Testuinguruarekin harremanetan jartzen laguntzen gaituzten gaitasunak dira. Gaitasun hauei esker, norbanakoaren sentimenduak, emozioak eta horien kontrola lortzen dugu.

Taula 5: Emozio Hezkuntzaren edukiak Lopez, F. (Barcelona, 2003: 42) Emociones y educación. Qué son y cómo intervenir desde la escuela

EMOZIO HEZKUNTZAREN EDUKIAK	
Emozio kontzientzia	Banakoaren eta ingurukoaren emozioak identifikatu eta behaketa. Emozioen kausak eta ondorioak ulertu Emozioen hitz adierazpena ez dena
Emozio kontrola	Emozioen erabilera Emozioen efektu negatiboen aurre hartzea Emozio positiboen garapena Frustrazioaren auto-kontrola eta onartzea
Auto-estimua eta emozioak	Auto: estimua, kontzeptua, konfiantza, onartzearen garapena Norbanakoaren espektatiba errealista
Gaitasun sozioemozionalak	Emozioak eta gizarteratzea Talde lana Arazoen eta emozioen ebazpena
Bizitza eta ongizate subjektiboaren gaitasunak	Antolaketa eta garapen gaitasunak Familia, eskola aisi harreman gaitasuna

¹¹ Golemanek emozioen adimena terminoan sozializatzeko eta norbanakoaren garapenaren gaitasun batzuen bilketa egin zuen. Gaitasun horietan, emozioen, eta hauen ezagutza eta kontrola ezinbestekoak dira eta auto-kontzientzia, emozioen kontrola, auto-motibatze gaitasuna, enpatia, gaitasun sozialak eta antsietatea dira gaitasun horiek.

Haurrak garatze prozesu batean dauden pertsonak bezala kontsideratuz gero, jarduerak egiteko momentuan modu autonomo batean eta kompetenteak izanez jokatu dutela ulertuko dugu. Haurrek, denbora laburrean bizi izanak arren, esperientzia propioak dituzte eta hauetatik ikasitako baloreak, emozioak, gaitasunak baloratu beharra dago, hauek izango baitira egoera bati aurre egiteko oinarria. Oinarri hori, pertsonaren barnean dauden emozio, ideia eta sentimenduak dira eta emozioen hezkuntzaren helburua horiek guztiak kanpora ateratzen ikastea dela esan daiteke. Hortaz, egindako proposamenetan sortarazten zaizkien frustrazioak, edota zorientasunak beraien sentimenduen adierazpena eta besteen sentimendu eta ideien sentsibilitatea erakutsiko dute. Horiek gertatzen diren heinean, umeek bere nortasuna, gaitasunak eta pentsamenduak ezagutzeko joaten dira eta poliki-poliki bere nortasuna eraikitzea lortzen dute. Kontuan hartuko ditugu esperientzia horiek guztiak desberdinak izango direla eta horren ondorioz gela bateko haurrak ez direla berdinak izango, batzuk erraztasunez adieraziko dituzte bere emozioak eta beste batzuek ordea ez. Baina, eraikitze hori sendoa izan dadin, segurtasuna sentitu behar dute heurre buruaz, hau da, auto-estimua maila altua lortu behar dute, eta hori hezitzaileen, edota familiaren esku dago, hau da, inguratzen dituzten pertsonen esku. Modu horretan, testuinguru jakin horretako partaideekin konexio bat sortzen da, hots, testuinguru horren kultura sortzen duen konexioa. Beraz, konexio hori osatzen dituzten emozio, ideia eta sentimenduak aniztasun bat osatuko dute eta guztien artean eraikitako ikaskuntza prozesu bat eratuko da; komunikazio bide eta ikaskuntza bide desberdinak eskatzen dituena.

Hori jakinda, proposatzen diren jardueretan, haurraren gertuko testuinguruaren jakintza errazten duten jarduerak eramango dira aurrera. Hauekin komunitate baten kide izateko sentimendua garatuko dute. Komuneko egoerak edota arazoak konpartitzeko aukera izango dute eta egiten dituzten ekarpen pertsonalak baloratzea posible izango da. Horretaz gain, hizkuntza mota desberdinen bidezko adierazpen jarduerak prestatuko dira. Haurrek hauek garatzen dituztenean, ez dituzte soilik sormen, gorputz, hizkuntza, edo motrizitate gaitasunak garatzen, baizik eta horien oinarri emozioak eta sentimenduak direla.

Beraz, emozioen hezkuntza garatzeko aurrera eramaten diren jarduera motetan oreka baten beharra dago. Jarduera batzuetan, haurrak talde baten kide sentiarazten saiatuko gara, beste batzuetan, protagonista edo pertsona bezala bakarrik dela sentiarazten saiatuko gara. Modu horretan, konfiantza bereganatuko du. Bestetik, adierazteko askatasunari garrantzia emango diogu, haurra bere osotasunean ezagutu ahal izateko eta bere benetako nortasuna kanpora atera dezan; baina, hezitzaileak zuzendutako jarduerari ere garrantzia emango die, izan ere, beste erlazio mota batzuk eraginez komunikazio harreman desberdinak sortzen dira.

Bukatzeko, emozioen hezkuntza esanguratsu baten bila joaten saiatuko gara. Kultura guztien barneraketa bezala, emozioez disfrutatzen eta eraginkortasun osoa ateratzen hasteko lehendabizi emozioak identifikatzen ikasi beharra dago, hauen esanahia ulertu ahal izateko. Geroago, identifikatzen ikasi eta gero, balore afektibo eta kognitiboetara egokituko dira, hau da, besteen lekuan jartzen ikasi. Ondoren, kutsu moralak landuko dira, beste hitzetan, gure emozioak egokiak diren edo ez diren ez dugu epaituko. Beraz, emozioen hezkuntza, nor bere burua eta inguruko erlazioen ezagutza prozesu etengabe bat dela esan daiteke.

2. METODOAK ETA MATERIALAK 2

Ikerketa aurrera eramateko metodologia kualitatiboa erabili da. Metodologia kualitatibo baten bidez, Sandín-en (2003) arabera (Martín, Elio, M.I; 23) hezkuntza eta gizarte fenomenoak ulertzera bideratutako jarduera sistematikoa eta praktika eta giza hezkuntza eszenarioen eraldaketa bideratzen duen metodoa izateaz gain, ezagutza talde antolatuta bateko garapena bultzatzen du. Metodologia honen ezaugarriak dira:

- Prozedura deduktiboen erabilpena
- Informazio bilketa malgua
- Hizkuntza kontzeptualaren erabilera
- Orientazio holistikoa, hau da, datuen bilketa eta zehaztasuna

Metodologia honen erabilpenarekin ikerketaren testuinguruan egiten duenaren inplikazioa eta subjektibotasuna ahalbidetzen dira datuen bilketaren bitartez; hala nola, elkarrizketak, azterketa desberdinak edota dokumentazio edota bibliografia desberdinen erabilpenaren bitartez.

Teknika horien erabilpenak datu kualitatiboen bilketa suposatzen du, hau da, bildutako datu guztiak testuan adieraziko dira eta jasotako datuen biltzea kategoría desberdinetan antolatuko da.

Lan enpiriko honen helburu nagusia musikaren sormena eta honek emozioen adierazpenean duen eragina denez, gaur egun arlo hori eskoletan lantzeko metodo baten azterketan murgilduko naiz. D hizkuntza ereduko eskola gehienetan *Urtxintxa* baliabideak erabiltzeko joera handia dago, baina argitaletxe desberdinak kontuan hartu eta gero, *Pearson* argitaletxeak, zehazki, musika arloa Haur Hezkuntzan lantzeko baliabideak eskaintzen dituela baieztatu izan ahal dut. Hortaz, *La Batuta Mágica* irakasle testu liburuaren azterketa egingo dut.

Lehenik eta behin, testu liburuaren azterketa egin aurretik, emozio adierazpenaren hezkuntzaren beharra dagoela ziurtatzeko, testuinguru jakin batetan¹², musikak emozioetan duen eragina aztertu dut. Musika erabiltzeko uneetan nolako jokabideak

¹² Hain zuzen ere, Nafarroako eskola unitario batetan. Ez dut ikastetxearen, ez ikasleen izenik aipatuko sekretu profesionala dela eta.

ematen ziren aztertu ditut, hauetan musikak eragina zuen eta zerbait adierazteko baliagarria den edo ez egiaztatu nahi nuelako.

Ondoren, testu liburuaren metodo, helburu eta edukien azterketa egin ahal izateko eta musikaren bidezko emozio lanketaren proposamenak aurkitzeko asmotan, aurretik, arlo teorikoan gai honen inguruko ditudan jakintzak zabaltzen saiatu naiz eta aurre iritzi kritiko bat sortzen ere bai. Modu horretan, musikaren sormenak testu liburu horretan duen garrantzia edo lekua zein den jakitea espero dut; geroago, garapen integralaren beharretara egokitua dagoen edo ez ziurtatzeko eta testu liburuak musika globaltasunaren bidetik lantzen duen edo ez egiaztatzeke.

Azkenik, metodologia globaltasun horretara bideratuta egonez gero, musika haurren garapen integrala lortzeko asmoz landuko du. Eta ondorioz, testu liburu honen proposamenetan emozioek garapenean duten garrantzia islatuta ikusiko dugu, baina horrela ez bada, emozioen hezkuntza aurrera eramateko helburu eta edukien proposamen beharra dagoela ondorioztatzeko beharra egonen da.

2.1. Ikerketa oinarritutako Haur Hezkuntza gela 2.1

Lehenago aipatutako moduan, ikastetxearen izena isiltasunean mantenduko dut, hala ere, ikerketa egindako eskolaren ezaugarriak ezagutzea aproposa da, geroago sortuko diren ondorioak dagozkien testuinguruan egokitzeke. Haur Hezkuntzako gela honetan 3, 4 eta 5 urteko 9 haur zeuden guztira. Berain arteko harremana sakona eta sendoa zen, bai eskolan, bai herrian eguneroko elkarbizitza zela eta.

Ikerketan kontuan hartu nituen irizpideen bidez, egungo eskoletan emozio adierazpenaren lanketa faltaren ondorioz, lekuz kanpoko jokabideak nabarmenak ikusi nituenez, gure gorputzaren barnean dauden sentimenduak kanpora ateratzeko baliabideen beharra (diseinuen proposamena) nolakoa izan behar zuen egiaztatu nahi nuen. Ikerketa egiteko, musika entzuten zen edo lantzen zen momentuan emozioetan eragina zuen edo ez ikusteko alderdi desberdinei erreparatu nien:

- Joko librean

- Musika entzuten zenean jokabide desberdinak nabarmentzen ziren, musika entzuten ez zenean konparatuta? Nolako eragina zuen musikak? Jarreretan, intentzioan, jokabidean...
- Musikarekin joko desberdinetan jolasten zuten edo musikarik gabeko joko beretan?
- Musikaren arabera, joko sinboliko bat adierazten zuten? Hau da, musikaren arabera emozio bat edo bestea identifikatzen zuten?
- Musikaren hitzak ulertzen dituzte edo ez diote jaramonik egiten?
- Musika zertarako erabiltzen dute eta nola? Baliabide moduan erabiltzen dute?
- Proposamen gidatuetan
 - Eguneroko goizetan nola dauden galdetzen diegunean zer esaten dute? Buruz dakiten sentimenduen kantaren bat abesten badute bere izatea horrekin identifikatzen dute?
 - Musika adierazpen jarduerak egiteko orduan esanahia ulertzen dute? Identifikatzen dira?
 - Musikari buruz zerbait galdetzerakoan edo eskatzean nolako jarrerak nabarmentzen dira?
 - Musika zertarako erabili du hezitzaileak? Eta nola? Haurrengan proposatutako helburuak lortu ditu edo haurrengandik nahi zuena lortu du?

2.2. Testu liburuaren izaera eta ikerketa egiteko irizpideak 2.2

Lehenago aipatutako moduan, lan honen bitartez, *La Batuta Mágica* testu liburuaren ikerketa egingo dut. Liburu hau aukeratzeko arrazoiak musika arloa bere osotasunean lantzen duen liburua dela eta Nafarroako 23/2007 Foru Dekretuan oinarritutako liburua dela izan dira.

La Batuta Mágica liburua *Pearson* argitaletxeari dagokio. Enpresa honek 70 lurralde baino gehiagotan egiten du lan eta ikasketa planen hitzarmenen arabera argitalpenak egiten ditu. Testu liburua bi liburu motetan dago banatuta: lehenengoa

irakaslearen liburua eta bigarrena ikasle liburua. Irakasle liburuan nolako metodoa eta musika helburu, edukiak, eta ebaluazio irizpideak haurren garapen psikoebolutiboaren arabera azaltzen ditu. Eta Haur Hezkuntzako ikasle liburuak 3 dira guztira, hain zuzen ere, 3, 4 eta 5 urtekoentzako lan koadernoak.

Testu liburuaren aurkezpenean, musikaren sormena eta emozioak adierazten ikasteko metodologia egokia izateko aukera dagoela uler daiteke, izan ere, beste ezaugarrien artean, jokoan eta esperientzia sentsozialean edota zentzumenetan oinarritutako metodologiaren erabilpenean oinarritutako testu liburua bezala ageri da definituta. Horretaz gain, testu liburu honen bidez hurrek musika hautemateko hotsa, gorputza eta instrumentu jolasen bidez landuko dutela dio; ikasle aniztasun gaitasunera egokitutako liburua dela ere bai, bere progresio gradualak dela eta. Beste hitz batzuetan, Curriculum Ofizialeko Oinarrizko Konpetentziak lortzeko orduan ikaskuntza esanguratsu baten bidez lortuko da testu liburuak eskaintzen duen metodoa haurrentzako motibagarria eta erakargarria delako eta ikasleentzako materiala ugaria delako.

Baina, eskoletan gaur egun murrizketen ondorioz sortutako egoerak zeintzuk diren jakinda, hala nola, material berrien erosketen murrizketa, liburu honen azterketa sakona egiteko beharra dagoela ondorioztatu dut. Horretarako, ikastetxe desberdinetako materiala hautaketaren irizpideetan oinarritu naiz eta irizpide horien guztien konbinazioaren bidez, testu liburu hau aztertzeko irizpideak sortu ditut. Ikerketaren helburua liburuak gure helburua lantzeko metodo egokia duen edo ez ziurtatzea da, eta horretarako, aipatu ditudan irizpideen bitartez, metodoa, helburuak, edukiak eta ebaluazio irizpideak aztertuko ditut, hau da liburuaren alderdi pedagogikoa. Nik irizpide horiek musikaren sormenaren bidez emozioen adierazpena lantzerantz bideratutako irizpide ikuspegira eraldatuko ditut, liburuak gure helburuarekin bat egiten duen edo ez baieztatzeko.

- Musika 4. Oinarrizko Konpetentziarekin harremanetan ageri da?, hau da, musika komunikatzeko tresna bezala ageri da deskribatuta?
- Zertara daude bideratuta proposamenen helburuak? Musika edukiak garatzera? Edo, musika ikaskuntza bidea delarik, musika ez diren beste edukiak barneratzera? Errealitateko egoerekin nolako harremana dute?

- Zertan oinarritzen dira esperimentazio, behaketa, kontzientzia kritikoa, sormen jarduera eta errealitatearekin harremanetan jartzeko helburu eta eduki proposamenak?
- Sentimenduen edota emozioen aipamen espliziturik ageri da? Emozioen aipamena implizituari dagokionez, non ikus daiteke? Zein eduki motari dagokio aipamena?

3. EMAITZAK ETA EZTABAIDAK 3

3.1. Haur hezkuntza gelako ikerketa 3.1

Eskolako egunak ez ziren beti berdinak izaten; egunaren arabera gertakizun desberdinak ematen ziren. Musika eskola egunen parte zen egunero eta joko librean edota garatutako proposamenetan entzuten ziren soinuak. Sortutako gertakizun horien kausa askotan musika izaten zen, eta askotan espero ez genituen jokabideak agertzen ziren.

3.1.1. *Joko librean 3.1.1*

Haurrei joko librean aritzeko denbora ematen zitzaienean, errutina batzuk errespetatzen zituzten. Gelako jostailuekin egoteko aukera izateaz gain, hezitzaileen proposamenetan parte hartzeko aukera zuten. Hauek ez ziren beti berdinak, batzuetan puzzleak, edo collageak egitea ziren eta beste batzuetan dantza edota oihalekin jolastea.

Normalean, gelaren barruan erabiltzen zen musika *Urtxintxa*¹³ proiektuko CDak eta *Pirritx eta Porrotxen* kanta ziren. Kanta hauek umeentzako ezagunak ziren, eta hauen hizkiak buruz zekiten. Gainera, hainbeste alditan entzutearen ondorioz, koreografiak txikiak ere kontrolatzen zituzten.

Orokorrean musika estilo hau jartzen genuenean, puzzleak edota eserita egoteko proposamenak egiten zituztenean, kontzentrazio maila altuagoa lortzen zela baieztatu nuen. Musikak kontzentrazio handiko giroa sortaraztea eragiten zuen, haurrak gustura zeudelako musika entzuten eta isiltasuna nabarmentzen zelako. Musika erabili gabe ordea, haurrak beraien artean hasten ziren hizketan, eta askotan zerbaitengatik haserretzen ziren. Baina, musikarekin, kanta abesteaz arduratzen ziren, eta denak aldi berean abesten zuten ez zuten eztabaidatzeko denborarik. Hala ere, egoera hau abestia buruz zekitenean soilik gertatzen zen, horrela ez zenean, musikaren bolumena zela eta ozenago hitz egiten hasten ziren, eta lasaitasuna nabarmendu ordez, inguru

¹³ *Urtxintxa* proiektua Euskal Herriko D ereduko eskola askotan jarraitzen duten metodoa da. Honek gizaratearen beharren arabera aldatuz doa, beti ere, euskararen lanketa sakona ahuldu gabe.

zaratatsua sortzen zen. Egoera honen aurrean, soinuaren intentsitateak hauren jokabidean duen eragina baieztatu nuen bolumenarekin jolastuz.

Bestalde, irakurtzen zituzten ipuinen abestiak entzuten zituztenean askotan jolasten ari ziren jolasa aldatzen zuten. Ipuinekin eta abesti horiekin balore desberdinak lantzen ziren egunero, ipuin bakoitzak bere mezua bidaltzen baitu. Horren ondorioz, abestiak balore horiekin daude erlazionatuta eta haurrek mezuaren arabera adierazi beharrekoa zer den ulertzen dute. Adierazpen hori irudikatzeko koreografia desberdinen erabiltzen ziren haurrekin, horregatik hauek buruz ikasita zeuzkaten. Hala ere, jolasten ari zirenean koreografiak hauetara aldatzeagatik, musikak emozioak sortarazten zizkietela esan daiteke?, edo hezitzailearen arreta bereganatzeagatik egiten zuten?, izan ere, haietako askok, dantzan eta abesten hasten zirenean hezitzaileari deitzen zioten, honek ikus zezan zertan ari ziren. Horrek musikari esker haurrek segurtasun maila bat bereganatzen zutela esatera eramaten nau. Haurrak euren buruaz ziur sentitzen zirela esan daiteke, horrela izango ez balitz ez zuten hezitzaileak ikustea nahi.

Dena den, musika estilo guztiekin ez ziren aldaketa horiek gertatzen. Koreografia horiek hizkirik ez zuten abestiekin ez zen gertatzen. Musika klasikoa entzuten zenean, hauek landu gabe zeuden eta hauren joko librean ez zuen eragin nabarmenik. Kanta hauek landu gabe zeudelako izango zen?, edo erabiltzen ziren jardueretan erlaxazioa zelako izango zen? eta haurrek erlaxazioa lo egitearekin eta lasaitasunarekin erlazionatzen zutelako ez zuten beraien jokoetan erabiltzen?

Horrenbestez, musikaren eragina joko librean landutako abestiekin ematen zela ikusi nuen. Hauek segurtasun eta kontzentrazioa eragiten zien umeei, beti ere, musika ezagutzen zutenean eta abestien hizkia ulertzen zutenean. Baina, emozioak sortarazteko musika mota bat erailteza egokia denik ez dela ikusi izan ahal dugu, izan ere, umeen esperientzia eta sentimendu guztietara iristeko beraiantzat esanguratsuak diren soinuak eta musika beharrezkoa da. Egoera hori, musika mota desberdinak erabiltzen zituzten ikastetxean baieztatu izan ahal nuen. Haur kanpotar baten gurasoek bere lurraldearen musika herrikoia ekarri zuten gainontzeko gelakideekin konpartitzeko. Haurrak musika hori entzuten zuen bakoitzean libreki dantzatzen hasten zen, eta ez eskolan ikasitako dantza ohikoekin, baizik eta, dantza estilo aske

batetan mugitzen zen, litekeena bere herrialdean dantzatzen zuten moduan. Dantzaren bidez adierazten zuen sentimendua handia zen, haurra musika horrekin identifikatuta sentitzen zela nabarmentzen baitzen. Ondorioz, haurrengan emozioen adierazpena lantzeko hauen testuingurura hurbiltzeko garrantzia azpimarratzen da egoera honekin. Musikak sentimendu jakin horiekin erlazionatutako oroitzapenak pizten dituela ikusi dugu, eta horiek beti emozioak ekartzen dituzte. Orain, hauek bideratzen eta komunikatzen ikasi beharra dago, eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesua ikasle eta hezitzailearen arteko harreman aktibo baten bidez eramango da aurrera guztien parte hartzea ziurtatzea.

3.1.2. *Proposamen gidatuetan 3.1.2*

Goizero hurrei nola zeuden galdetzen zaie, eta sentimenduekin harremana duten ariketak eramaten dira aurrera, hala ere, zoriontsu izateko beharra dagoela dirudi ariketa hauetan. Txartel batzuen bidez emozio desberdinak adierazten dira, baina denek zoriontsu daudela beti esaten dute eta zoriontsu daudela esateagatik kanta bat abesten dute. Beraz, gainontzeko sentimenduekin kantarik ez dagoelako zoriontsu izatera behartuta sentituko dira?, kanta abesterakoan gozamina dagoelako esango dute pozik sentitzen direla?, ez litzateke egokiago sentimenduak identifikatzen ikasteko sentimendu bakoitzak bere kanta izatea?

Eskola honetan musika psikomotrizitatearen oinarrizko baliabidea zen. Haurrek musikarekin dantzatzea gustukoa zuten eta oinarrizko gaitasun motorrak garatzera zeuden bideratuak egiten ziren jarduerak. Denak dantzaren bidez bideratzen ziren baina, sentimenduen adierazpenari ez zitzaion garrantzirik ematen, hauek lantzea ez zelako helburu. Hala ere, emozioak sortarazten ziren eta askotan hauek bideratu beharrean alde batera uzten ziren. Esaterako, haur batek musikaren erritmoa eramatean lortzen ez zuenean eta frustrazioa agertzen zenean, ez zuen gainontzekoen laguntza onartzen. Honelako egoerak sortzen zirenean gela honetan abesti batzuk kantatzen zituzten eta denek emozio hori sentitzen zuenari abesten zioten. Abestiaren hitzak hurrengoak ziren: *“triste ba zaude zu, jolastu, jolastu, triste ba zaude zu jolastu eta kantatu”* Honelako abestiek batzuetan eragin positiboa zuten eta haurra animatzen zuten. Baina, horrek frustrazioa gaintzeko eta eramaten jakiteko modu egokia da?, haurrak modu horretan momentu horretan sentitzen duen emozioa

adierazten du? Nik haurra frustrazioa gainditzeko beharra duela uste dut ez izan nahi arren. Haur guztiek eta hezitzaileak berari zuzenduta kanta bat abesten diote eta beste erremediarik edo egoera horretatik ihes egiteko aukerarik ez dagoela dirudi.

Dena den, musikak eragin handia duen momentua hurrekin erlaxazioa aurrera eramateko unea da. Musika egoera girotzeko erabiltzen zen eta, hitz batzuen bidez arnasa nola hartu, zerbait imajinatzea eta lasaitzeko adierazten zitzairen. Hau da hitzen bitartez haurrak egoera zehatz batenganaino eramaten ziren.

Beraz, musikak emozioak adierazten ikasteko duen ahalmenari ez zaiola probetxu guztia ateratzen ikusten da. Emozioei hitz egiten duten kantak erabiltzen dira, baina, beti emozio batzuei egiten die erreferentzia, eta horrek emozio horiek sentitzea egokia ez dela sentiaraztera eraman dezake norbait.

3.2. La Batuta Mágica testu liburuaren azterketa 3.2

La Batuta Mágica testu liburuaren erabiltzen duten ikastetxeetan musikan landu beharreko edukiak eta gaitasunak garatzeko beharrezkoa den prestakuntza eta antolakuntza dute eskura. Liburu hau izanda, musikan espezialista ez den hezitzaileak ere musika eskolak aurrera eramateko aukera izango du, Haur Hezkuntza 2. zikloko urte guztientzako Unitate Didaktikoak agertzen direlako antolatuta.

Liburuaren aurkezpena irakurrita Haur Hezkuntzari eta musika arloari berebiziko garrantzia ematen dion proiektua kontsidera daiteke, izan ere, haurraren garapen osoan oinarritzen da. Esaterako, etapa honetan garatzen hasten diren adimen gaitasunean nortasunaren ezaugarrietan, gorputzaren ahalmenean eta gizarteratze eta harreman hastapenean. Horretarako, Nafarroako 23/2007 Foru Dekretuaren Proiektu Curricularraren diseinuaren ulermen maila errazten eta koherentzia ziurtatzen du, zehar lerroekiko konpromisoa ziurtatuz, eta aniztasunari erantzuna emateko bide berriak jorratuz.

Ikerketaren helburua musika sormenaren bidez emozioen adierazpena lantzea dela kontuan hartuta, testu liburu honek musika eta gorputz hezkuntza eta hezkuntza dramatikoaren Curriculum materialez osatuta egotea eta musikaren bidez arlo desberdinetan erabilgarriak diren ikaskuntzak baloratzea garrantzitsua da. Gainera, proposatzen dituen jarduerak guztiak proposamen irekiak eta malguak direla dio,

hortaz, liburu honek ikastetxe bakoitzeko hezitzaileak bere eskolako testuingurura beharrezkoak diren proposamenak egokitzeko, beharrezko aldaketak egiteko, eta berriz ere proposamen berriak sortzeko esku uzten du lan egiteko modua. Hori guztia gure proposamenerako egokia da, modu horretan eskaintzen dituen proposamenak egokitu ahalko ditugulako.

Liburua metodologia modernoetan, eskola esperientzietan, eta hezitzaile desberdinek ikusitako beharretan oinarritutakoa da. Beraz, egungo musika eta gorputz hezkuntza beharretara bideratutako metodo globalizatzaile bat eskaintzen duen liburua dela esan daiteke.

Horrela, testu liburuak metodo linealarekin konformatu beharrea, proposatzen dituen helburu guztiak modu global batetik eta egoera jakin batetan oinarrituta saiatzen da lortzen.

Laburbilduta, testu liburu honek ikaslearen pertzepzio eta espresio gaitasun guztiei erantzuten die, beti ere, ikasle taldearen ikuspegi musikal eta korporaletik egokitzeko aukera emanda. Ondorioz, gure jardueren proposamenetarako egokia izango dela dirudi.

Hurrengo ikerketaren bidez, liburuaren aurkezpenak aurreko ezaugarri horiek guztiak betetzen dituen edo ez saiatu naiz egiaztatzen. Horretarako, metodoetan eta materialetan esandako irizpideetan oinarrituko naiz, gure proposamenak bete beharko dituen helburuetara bideratuta baitaude.

3.2.1. *Musika komunikazio bide baloratuta 3.2.1*

Liburuaren printzipio metodologikoetan oinarritzko helburua musika entzutez, abestuz, dantzatzuz eta instrumentuak joz kanpoko testuingurua hautematea eta barneko sentrazioak adieraztea dela deskribatuta dago. Honen arabera interpreta dezakegu gure adierazpenean musika erabilia beste komunikazio metodo bat dugula eskuragarri eta ondorioz emozioak adierazteko orduan beste bide bat ere bai.

Noski, pertsona guztiak berdinak ez garela eta komunikatzeko erabiltzen ditugun metodo gehienak pertsonarengan egokitzen direla kontuan hartu beharra dago. Musikaren kasuan, aniztasuna aurkitu nahi badugu musikaren ezaugarrietan oinarrituko gara eta horiek eskaintzen dituzten aukeraren arabera bakoitzarentzat

egokiena dena aukeratuko dugu. Horretarako, hezitzaile garenez musikaren aniztasuna non dagoen bilatu beharko dugu eta baita gure gelako haurren beharretara egokitu ere. Aniztasun hori, musika estiloetan aurkitzeaz gain, musika sortzeko aukeretan aurkituko dugu, hala nola, erritmoen, melodien edota entzumen adierazpenean.

Honekin lotuta, irakaslearen testu liburu honetan, aurreko guztia aurrera eramateko pausuak azalduta daude. Entzumenaren hezkuntzaren bidez, liburuaren arabera, gure gorputzak, material desberdinek, eta eskolako instrumentuek sortzen dituzten soinu parametroak diskriminatzen erakusteko helburuak eta edukiak azaltzen dira. Gainera, arreta, kontzentrazio, memoria eta musika entzutearekin harremanetan jartzeko pausuak azaltzen dituela adierazten du testu liburuak. Hezkuntza erritmikoari dagokionez, autonomia pertsonala, mugimendu jokaeren garapena, denbora, doinu eta erritmo musikalen eta ez musikalen diskriminazioa eta interpretazioa lantzen saiatzen da. Eta hotsaren hezkuntzaren bidez, gaitasun bokal eta hots hezkuntzaren errutinak garatzen saiatzen da ahotsaren aukera desberdinak (arnasketa, artikulazioak, helaraztea, ...) eta haur kantak erabilita.

Horretaz gain, musika hezkuntzaren material curricular honek komunikazioarekin duen harremana metodoaren printzipioetan nabarmentzen da. Musika hezkuntza baloretzat kontsideratzen du, eta haurraren prestakuntza integrala kontuan hartzen du, bertan gaitasun psikologiko eta soziologikoak daudelako, berez, komunikazioarekin harreman zuzena duten gaitasunek. Bestalde, sormenari eta askatasunari garrantzia ematen dio metodoak, honen bat-batekotasuna eta behar duen prozesua azpimarratuz. Atal honek emozioen komunikazioan eragin zuzena dauka, izan ere, sormenari esker emozio horiek musika erabilita adierazteko moduak aurkituko dira eta bakoitzak bere egoerara egokitzeko aukera edukiko du. Esperimentazioaren eta parte hartze printzipioak ere komunikatzeko gaitasunaren beharra duten jarduerak dira, eta azkenik sormen aisi batekin beharra azpimarratzen du.

Aurrera eramaten duen metodoa Montessori ildoan dago kokatuta. Saioaren hasieran errutina batzuen garrantzia aipatzen du irakasle liburu honek, non, abesti bat, gorputz perkusioa eta imitazioz dantza joko batzuk egingo dituzte. Errutina honen azken zati horretan ez dut irakaskuntza-ikaskuntza prozesu esanguratsu baten presentzia nabaritzen, eta ondorioz ezta musika sormenaren bidez ezer egiteko aukerarik ere,

imitazioaren atzean kopiatze prozesua dagoelako. Beraz, atal honetan jarduera aktiboak eta parte hartzaileak direlako baieztapenarekin ez nago ados. Baina, entzumen teknikak aipatzen dituenen, ordea, adierazpen mota desberdinak azpimarratzen ditu eta honako hauek sentimenduetan, adimenean eta memorian oinarritutako prozesuen bidez aurrera eramango dituela dio.

Azkenik, musika eta komunikazioaren arteko harremana Hizkuntzaren Komunikazio Konpetentzia definitzen duenean da. *Pearson* argitaletxearen arabera, Konpetentzia honek musika hezkuntzarekin harreman zuzena dauka eta *La Batuta Mágica* testu liburuan prozedura anitzekin aurrera eramaten dituela dio. Lehenengo harreman nabarmena hitzaren erabilpenean eta metrikari dago eta bigarrena, kontzeptuen ikaskuntza eta adierazpen eta ulermen hizkuntzaren garapenean abestiek duten papera adierazten du.

Behin, testu liburuak musika komunikatzeko tresnatzat baloratzen duela ikusita, hori lantzeko proposatzen dituen Unitate Didaktiko desberdinen¹⁴ helburuak eta edukiak aztertuko ditut, sentimenduen adierazpenarekin zer ikusia duten edo ez duten baieztatzeko eta ebaluazio irizpideen ikerketa ere egingo dut hemen zer gaitasun bereganatu behar duten nabarmenduta azalduko dela uste dudalako.

3.2.2. Testu liburuko unitateen azterketa 3.2.2

Lehenengo unitatea: Las aventuras de Solete – Eguzkitxoren abenturak

Unitate honetan gorputz garapena gehien lantzen den arloa da. Helburu gehienak, ikusiko dugun moduan, musikaren bidez mugimenduaren eta adierazpenaren garapenari daude bideratuta, eta horrela ez bada, helburuak mugimenduaren bidez jorratzeko aukera dago.

Gorputzaren soinu aukerak esploratzea unitate honen lehenengo helburua da. Hala ere, hurrengo helburuek honekin harreman zuzena dutela nabaritu dut, izan ere, lehenengo helburu honetan ez da gorputz atal edo soinu aukera jakin baten zehaztapena egiten, baina hurrengo helburuetan zehaztasun horiek ikusten dira.

¹⁴ Aukeraturtako Unitate Didaktikoak 5 urtekoentzat daude bideratuta. Hauek aukeratzeko arrazoia adin honetan denek musika hezkuntza bat jaso dutela ziurtatuta dagoela izan da. Modu horretan, musikaren edukiak era sakonago batean garatzeko aukera dago.

Adibidez, *melodia edo abesti baten pultsua gorputz osoa erabilia eta mugituta jarraitzearen* helburuak pultsua nola jarraitu behar den zehazten du, hain zuzen ere, gorputz osoa erabilia eta mugituta. Edo, *soinu fuerteak eta suabeak aurpegi adierazpenak erabilia adierazteko* helburuak soinuak nola eta zerekin adierazi azaltzen du. Bestetik, aurreko bi helburuak baino orokorragoa izan arren, *mugimendu eta mugimendu inhibizio egoeretan soinua eta isiltasuna desberdintzeko* helburuak ere desberdindu beharreko elementuak zein egoeretan landu behar diren azaltzen du.

Ikus daitekeen moduan helburu guztiek musikarekin harreman zuzena dute, baina musika elementu horiek lantzeko modua malgua dela esan daiteke, izan ere, interpretatzen diren ikuspegiaren arabera modu batean edo bestan garatzeko aukera dago. Kasu honetan, emozioen adierazpena musikaren bitartez lantzea denez oinarria, musika eta gorputz atal desberdinen erabilpenari eta aipatutako helburuei esker lortzen saia gaitzke.

Beste helburuei dagokionez denek musikari zuzendutakoak dira, beste arlo batetara bideratzeko aukerari eman gabe. Esaterako, *iraupen desberdineko 3 neurri antzeman eta adierazi: pultsua (beltza), pultsua baino azkarragoa dena (bi kortsea), eta pultsua baino motelagoa dena (zuria)*. Edo *eskolako musika instrumentu desberdinak ezagutu eta desberdintzeko* helburua. Dena den, horiek aurrera eramateko modua ez dute aipatzen, beraz, aurrekoekin bezala egiteko aukera dago. Adibidez, musika instrumentuak ezagutzeko sentimenduak adierazteko soinuak sortuz garatzeko aukera dago, era horretan, instrumentuak manipulatzeko dira emozio adierazpenaren ildotik.

Bestalde, edukiak aztertuta, denak musikaren atalak barneratzera daudela bideratuta ikus daiteke; soinua, isiltasuna, hotsa, fuerte eta suabe kontzeptuak eta hauen ikaskuntza prozesuen barneraketa ziurtatzeko.

Aipatzeko dagoen beste ezaugarri bat, eguneroko bizitzara lotuta dauden helburuak eta edukiak daudela. Hauek haurren garapen integralari onurak ekartzen dizkiete eta baita emozio adierazpenei ere. Helburuei dagokionez, *ahoskera eta artikulazio gaitasunak garatzea eta etxebizitzan inguratzen gaituzten soinuak antzematea, deskubritzea eta diskriminatzea* dira. Eta edukiei dagokionez, *gorputza instrumentu bera eta arnasketa eta artikulazioa* dira.

Amaitzeko, ebaluazio irizpideetan, musikaren kontzeptu eta kontzeptuen barneraketari zuzendutako irizpideak daude, baina aurreko guztiarekin harremana dituen irizpideak daude. Hurrengo hiruak adierazpenari zuzendutakoak dira: *gorputz soinu gaitasunak ezagutzeko interesa, soinu estimulu bati aurpegi adierazpenaren bidez erantzun eta arnasketa eta artikulazioa praktikatzea.*

Gauzak horrela, unitate didaktiko honen bidez, emozioei adierazpen zehatzik egin ez arren, musikaren bidez hauek lantzeko aukera dago. Batez ere, aurpegi adierazpenean eta mugimenduan oinarrituta dago, baina emozioak musikaren bidez interpretatu beharrean musikak sortzen dituen emozioak adierazteko bideratuta dago.

Bigarren unitatea: La flauta locuela – Txirula eroxka

Unitate honen helburuak lehenengoarekin antzekotasuna dute, batzuk, gaitasun berak garatzera daude bideratuta eta beste batzuk, ordea, aurreko unitatean garatutako oinarritzko helburu batzuk sakonago garatzera. Lehenengo unitatean hotsaren hezkuntza esperimentatzea zen helburu eta orain horren garapena; edo ahoskera garapena bereganatuta egongo denez, bigarren unitate honen oraingo helburua ahoskera hobetzea da. Horretaz aparte, aurrekoan baino garrantzia gehiago ematen zaie soinuaren parametroei. Oraingoan, altuera eta intentsitatea baloratuko dira eta lehenago soilik intentsitatea. Dena den, aurreko unitatean erritmoaren lantzea gehiago nabarmentzen da oraingo unitatean baino.

Berriz ere, aurreko unitatearen antzera, helburuak emozioen adierazpenetik garatzeko aukerarekin topatzen gara. Aukera hori *abesti bat keinuak erabilia interpretatzeko eta istorio bat musika erabilia kokatzeko* helburuetan dago. Lehenengoan musikaren bidez emozio desberdinak sortarazteko egoera desberdinak aurkez daitezke baina, bigarreanean, musika sormenaren erabilerari esker istorio baten sentrazioak, emozioak edota testuinguruaren adierazpena sortu beharra dago, eta hori da lan honen funtsa, musika erabilia emozio hezkuntza bat aurrera eramatea, hau da, musika komunikazio bide bihurtzea.

Aitzitik, *talde dantza bat interpretatzeko koreografia eta erritmoa mantentzeko* helburuak pertsonok barnean dugun hori ateratzen ez duela laguntzen uste dut. Baliteke, haurrei emozio zehatz bat erakusteko asmoarekin egonez gero, emozio jakin

hori adierazten ikasteko bide bat izatea, baina pertsona bat sentitzen ez duen emozioa adieraztera behartzen badugu, egoera deseroso batetan aurkituko da hori interpretatzeko asmorik ez duelako izanen. Hortaz, helburu hau beste gaitasun batzuk garatzeko asmoarekin erabili beharra dagoela uste dut, hala nola, mugimendu eta erritmo batzuk jarraitzen ikasteko edota dantza baten esanahia aztertzeo baina, koreografia alde batera utzita, inor behartuta sentitu ez dadin.

Bestalde, zentzu handirik ez duen helburua *instrumentuetan soinu agudoak eta behe-soinuak keinuen bidez adieraztea* dela iruditu zait. Instrumentuak bereziak dira sortzen dituzten soinuengatik, eta soinu horien funtsa askotan instrumentuak eginda dauden material, forma eta tamainarengatik da. Ondorioz, soinu agudo eta behe-soinu horiek adierazi ahal izateko, aurretik hauen ezagutza da beharrezkoa, eta horretarako instrumentu horien soinua ezagutu beharra dago. Beraz, helburu hau bi helburu desberdinetan banatzea aproposa litzatekeela esango nuke. Batetik, instrumentuen materialak, formak, eta tamainak aztertzea eta ondoren, instrumentu bakoitzaren estruktura ulertzeko soinuen azterketa egitea, geroago hauekin adierazi nahi dena posible izateko.

Bukatzeko, ebaluazio irizpideei erreparatzen badiegu, musikaren oinarrizko hezkuntzari bideratutakoak eta musika adierazpenari bideratutakoak desberdin daiteke. Oraingoan, aurreko unitatean ez bezala errealitatera lotutako irizpideak ez dira nabarmenak. Adierazpenaren ikuspegitik baloratuz gero, irizpideak haurren errealitatetik urruntzen direla ausartuko naiz esatera, *abestien adierazpenarekin disfrutatzea* irizpide bezala baloratzea ez dut egokia ikusten. Lehenago ikusitakoaren arabera, pertsona bakoitzak komunikabide batzuetara egokituko dira eta beste batzuk ordea, beste komunikabide batzuetara. Horrenbestez, ez dut uste abestiek disfrutatzea ebaluatzeo zerbaite denik. Horiek interpretatzeko gaitasuna ebaluatzea beste gauza bat da; umeei ahalik eta komunikabide gehien ezagutzen lortu behar dute, benetan, bakoitzarentzako egokiena dena ezagutu ahal izateko.

Hirugarren unitatea: Berta y su cuento fantástico - Bertaren ipuin itzela

Unitateak aurrera egin ahala helburuak gero eta bideratuagoak daude musika sormena eta adierazpenera, beti ere, oinarrizko musika hezkuntza bat mantentzen saiatzen direla, hau da, instrumentu soinuen diskriminazioa, eguneroko soinuen ezagutzea,

erritmoak mantentzeko gaitasuna, eta abar. Prozedura helburuek gero eta garrantzi gehiago dute eta hauekin lan egiteko metodoak irekiagoak izateko aukera handiagoa da. Baieztapen hori hurrengo helburuetan oinarrituta egin dut.

Lehenengoa, soinu parametroen hautematea eta keinu adieraztea jarduera ludikoetan eta eguneroko objektuen erabilpenean; helburu horrek haurren errealitateari erreferentzia handia egiten diola esan daiteke, izan ere, eguneroko objektuen erabilpena aipatzen du.

Bigarrena, *gorputz perkusioaren bitartez pultsua eta doinua adierazteko* helburua da. Honi esker musikaren sormena eta emozioen adierazpena garatzeko aukera dago, beste adierazpen mota bat ahalbidetuz, hau da, kanta erabili beharrean gure gorputz gaitasunak eta erritmoak erabiliz.

Eta hirugarrena, *musika dialogo batetan melodikoki eta erritmoa erabilia inprobisatzea*. Musikak sortzeko gai den emozio horien adierazpena helarazteko.

Horiek guztiak garatu ahal izateko, eduki desberdinen proposamenean *oinarrizko soinu eta erritmo sortzea, gorputzaren, objektuen eta musika instrumentuen erabilpena, eta kantua erabiltzeko* edukiak garatzea aipatzen du. Eduki horiekin pertsona batek musikaren bidez adierazteko gaitasun gehienak aurrera eramateko aukera duela esan daiteke, eta ondorioz, aurreko kasuetan bezala, umeek bere gaitasunak ezagutzeko bidea dutela ere bai.

Ebaluazio irizpidearen ikuspegi aldaketa nabarmena dago. Haurren sormenean sinesteko aukera ematen dute, hain zuzen ere, umeen ahalmenean. Horrek bere gaitasunak edo barruan dutena kanpora ateratzeko beharra dagoela adierazten du. *Sortze erritmiko melodikoen sorkuntza onartzea eta instrumentuen bidez erritmoak interpretatzea* dira ikuspegi aldaketa erakusten duten irizpideak.

Laugarren unitatea: Solete y su primo el guardabosques – Eguzkitxo eta basajaun lehengusua

Ikusi ahal izan dugun bezala, haurren gaitasunari unitateak aurrera egin ahala gero eta garrantzi gehiago ematen zaio, izan ere, imitazioa eta ezagupen berrietara bideratutako helburuak desagertuz joan dira. Oraingo helburuak, diskriminazioari, desberdintzeari, sortzeari, lortzeari edota zerbait buruz ikastera daude bideratuta.

Honek musikaren sormenarekin harreman zuzena dauka, hurrek oinarrizko musika hezkuntza bat jaso dutelako eta lortutako baliabideen bidez ekoizpen berriak sortzeko gaitasuna dutela suposa daitekeelako.

Joko egoeretan soinu parametroak antzematea eta adieraztea, eskolako perkusio instrumentuak diskriminatzea eta adieraztea, mugimendua musika izaera eta erritmorik egokitzea eta melodia eta mugimenduak buruz ikastearen helburuak dira aipatutakoaren adibide garbia.

Bestalde, musikaren erabilpena errealitatean ere nabarmenagoa da. Honek, aurretik aipatutakoarekin du konexioa; hurrek gero eta musika gaitasuna garatuago izango dutenez, musika bizitzen dituzten egoeretara aplikatzeko gai izango dira, hau da, musika egoera desberdinetatik aurrera egiteko baliabide bezala erabiltzea posible izango dute. Esaterako, joko egoera desberdinetan, bere inguruko soinuak adierazterakoan, hala nola, animaliak, edota musikak eskatzen dituen beste gaitasun batzuk erabiltzeko beharra dagoenean, arnasketa teknikak, erritmoak, edota ahoskera eta artikulazio egokien erabilpenean.

Baina unitate honetan, haurrentzako zailegia izan daitekeen arloa partituren irudikapena dela irudi zait. Haur Hezkuntzako umeei beraien emozioak, pentsamenduak edo adierazi nahi duten hori irudikatzeko metodo desberdinak daude eta haurren garapen integralarekin harreman zuzena dutenak. Adibidez, beraien gorputza erabilia sortutako mugimenduak, edota soinuak. Dena den, ebaluazio irizpideetan ez da partituren idazketari buruz ezer aipatzen, bakarrik hauen jarraipena aurrera ateratzeko aipamena irakur daiteke.

Horretaz gain, aurreko unitateetan bezala musika adierazpena eta kanten erabilpenarekin disfrutatzeko ebaluazio irizpidea ageri da. Lehenago aipatutako arazoaz gain, bigarren eragozpen bat dagoela ausartuko naiz esatera: disfrutatzeko helburu hori aipatzen denean, soilik kantekin egiten da, zergatik ez dute erritmoarekin, entzumenarekin edota beste musika atal batekin egiten? Ez dira kantak bezain garrantzitsuak? Oraingoan musikaren adierazpenarekin erlazionatu dute disfrutatze hori, baina ez dute kantekin bezala zehaztu.

Bosgarren unitatea: El jardín mágico – Lorategi magikoa

Unitate honetan musika sormenaren atalik nagusia ageri da lantzeko. Inprobisazioa. Bi helburutan ageri da aipatuta, *testu baten inguruko melodia eta oinarri erritmo baten testua inprobisatzea eta musika ezagun batentzako testua inprobisatzea*. Inprobisazioaren bidez musika sormena lantzeko teknika oso egokia da eta geroago proposatuko dugun jardueretan aurrera eramango dut. Gainera, inprobisazioaren bidez pertsonarengan konfiantza eta segurtasuna indartuko dira, era berean, komunikazioa eta entzumena eta adierazpen gaitasuna modu ludiko baten bidez aurrera eramatea posible bihurtzen da, hortaz, emozioak adierazteko momentuan indibiduoaren naturaltasunik garatzean lortzen saiatuko gara helburu hauek lantzean.

Illo horretatik jarraituta, helburuak musikaren sortzea dute oinarri, eta lehenagoko unitateen helburuekin konparatzen badugu, unitate hau musikalagoa izango dela esan daiteke. Sortzeko momentuan ez du musika baten interpretazioarekin zer ikusirik, haurrak dira musika sortu behar dutenak, hain zuzen ere, testu baten gaiaren arabeko melodia sortzea. Eta hori da lanaren helburua emozioak musikaren bidez adieraztea.

Ebaluazio irizpideetan inprobisazioa agertzen da, baina ez helburuetan aipatu duten moduan, baizik eta musikaren adierazpenaren ondorioz testu baten sorkuntza ematea. Hala ere, inprobisazioa modu zuzen batean aipatu ez arren beste modu batzuetan ageri da islatuta: *abestiak dantza eta instrumentuak erabilia laguntzea, edo adierazpen keinuak erritmo eta melodietara egokitzea*.

Unitate honen azterketarekin amaitzeko, orain arte aipatu gabeko baliabide batekin topatzen gara; hain zuzen ere, pantomimarekin¹⁵. Honek, metodoak haurren parte hartzeari garrantzia ematen diola esan nahi du, izan ere pantomima ulertzeko jarduera aktibo baten beharra dago. Antzezlanaren egitea da, eta kasu honetan ikusten ari denari eszena bat komunikatzen zaio. Baliabide honen erabilpena, haurrentzako motibagarria izan daiteke, jardueraren protagonistak sentitzen direlako, eta adin hauetan egozentrismoa barneratuta dutelako. Hortaz, emozioen adierazpena lantzeko baliabide

¹⁵ Pantomima hitzik gabeko antzerki generoa da, mimika bidez antzezten dena eta askotan musikaren laguntza izaten duena.

egokia dela esango nuke. Gainera, musikaren erabilpenari esker haurrek istorio desberdinen egoerak adieraz ditzakete eta horien emozioak ere. Edota bere testuinguru gertuko egoera bat adierazi, bere errealitateari jarduera egokituz.

Seigarren unitatea: Solete va al circo – Eguzkitxo zirkura doa

Unitate honetan, testu liburuaren azken unitatea dela ikusita, haurren jarduera protagonista izango da. Helburu gehienak haurren musika sormena garatzera daude bideratuta. Esaterako, *entzunaldi baten akonpainamendua sortu, abestien interpretazioa erritmoa eta tonua mantenduz, edota soinuaren parametroak eta inguruko soinuak, abestiak, eta entzunaldiak adieraztea*. Bestalde, sormena hitza aipatu ez arren, musika pasartean entzunaldi aktiboa egitea edo erritmoari dagokion mugimendu bat edo melodi batentzako testua egokitzea sormenaren sinonimo dira. Gainera, sormena emozioen adierazpen zuzenarekin ez da ageri erlazionaturik, baina, beste arloetan ematen da eta emozioak landu ez arren agertzen dira, beste momentu batean adierazten ikasteko baliogarriak izan daitezkeenak. Zerbait adierazteko ezagutu beharra dago. Helburu hori, *baliarik gabeko materialak musika instrumentuen eraikuntza egiteko da*. Honekin erlazionatuta, musika pasarte entzunaldi aktiboaren helburua dago. Musikak entzutea, nori ez dizkio sentimenduak sortarazten?, nori ez dakarzkio oroitzapenak burura? Batzuetan, leku batetan entzundako abestia, testuinguruko soinuak edota norbaiten ahotsa gogoarazi dezake zerbait entzuteak, eta horren ondorioz, emozioak sortuko dira gure barnean. Horiek, emozioen hezkuntzarako erabilgarriak dira, umeek bizitako esperientziekin lotuta dagoelako eta kanpora ateratzeko beharra izango dutelako. Modu horretan, sentitzen ez duten zerbait adieraztera ez ditugu behartuko, eta garatutako jarduera haurren errealitatera hurbila izango da.

Dena den, buruz ikasteko jarduerari garrantzia ematen zaiola nabarmentzen da. Memorizazioa, berez ez da aurreko helburuak bezain aktiboa den jarduera, izan ere, zerbait behin eta berriz errepikatzearekin dago lotuta. Baina, aurreko helburuekin lotzen badugu errentagarritasun handiko jarduerak lortzeko aukera egon daiteke. Haurrek kantak edota dantza koreografiak buruz ikastearen ondorioz, musika estruktura desberdinen barneraketa suposa daiteke, modu horretan, baliabide horren beharra dutenean erabiltzeko aukera izango dute. Buruz ikaste horri balioa emateko,

aurreko esperientzietan oinarrituta, egoeraren arabera zentzua bilatu behar zaio, jarduerak haurrentzako zentzu logiko bat bereganatu dezan. Ez du ezertarako balio haurrei kopiatze hutsa eskatzen badiegu eta gainera buruz ikastera behartzen baditugu, izan ere, ikaskuntza esanguratsu bat lortu beharrean, etorkizunean momentu horretan ikasitakoaz ez dira oroituko, eta egindako esfortzu edota saiakera guztiak ez dute ezertarako balio izango.

3.2.3. *Unitate guztien azterketa orokorra 3.2.3*

Ikerketaren atal honetan 5 urtekoen Unitate Didaktikoen datu bilketa egingo dut, geroago ondorioak garatzeko orduan ideiak antolatuta egon daitezen eta errepikapenik ez dadin egon.

Azterketa egin eta gero 5 urtekoentzako proposamena garatze prozesu batean murgilduta dagoela ikus daiteke. Musika edukiak barneratuz hastea proposatzen da, beti ere, modu aktibo batean eta garapen integrala kontuan hartuta eta haurraren jarduera autonomoa amaitzen da, hau da, sormenaren garapenean.

Musika eta mugimenduaren arteko harremana unitate guztietan nabarmentzen da, batez ere, adierazpena aurrera eramateko momentuan. Hori guztia, emozioen adierazpenarekin lotura handia dauka, izan ere, musikak sortarazten dituen emozioak adierazteko mugimendua erraztasunez erabiltzen den baliabide da. Mugimenduak erritmoa definitzen du, hau da, mugimenduaren bidez erritmoa mantentzen dugu eta musikaren ezaugarri hori barneratzen dugun bitartean sentazio desberdinak adierazteko bide bihurtzen da. Pertsona baten mugimenduek asko esan dezakete pertsona hori bizitzen ari den egoerari buruz, hala nola, beste batzuen artean urduritasuna, lasaitasuna, estresa, poztasuna, tristura edota energia maila adierazten ditu.

Bestetik, hotsaren garrantzia unitate guztietan garatzeko helburu bezala ageri da. Hotsa gizakiok dugun berezko komunikatzeko gaitasuna da, gainera, beste izaki bizidunek ez bezala hizkuntza daukagu eta musikak garapen linguistikoan ekarpenak dituela demostratuta dago. Gizakiaren gaitasuna dela ikusita, hezkuntzak landu beharreko zerbait da, eta horretarako musikaren hezkuntza erabiltzeko aukera dago. Musika berezko hizkuntza izateaz gain, soinu parametroetan oinarritutakoa da, eta

adierazteko bide desberdinak eskaintzen ditu. Horiek unitate hauetako eduki proposamenetan ikusi ditugu, hala ere, formalena partiturak dira. Partituretan musika idatzita irakur daiteke, baina hurrekin hauen idazkera lantzea ez dut garrantzizkoa ikusten, izan ere, kodigo berrien barneraketa suposatzen du horrek eta adin txikietan hauek ez dira errazak ikasten. Gainera, ohiko partituren ordez, *musikograma*¹⁶ deituriko baliabidea erabil daiteke. Hauek musika adierazteko erabiltzen dira, baina pentagrama eta notak erabili beharrean, irudiak edo haurrentzako esanguratsuak diren sinboloak erabiltzen dira.

Hizkuntzaren garapenarekin jarraituz, unitate guztietan haurren errealitatearen gertuko helburuak irakurtzen dira. Gehienak haurraren gaitasunekin daude harremanetan, adibidez, arnasketarekin, ahoskerarekin edota artikulazioarekin, baina haurren gertuko esperientzietatik garatzeko helburuak ere saiatzen da islatzen, esaterako, modu ludiko batez garatu beharreko helburuak eta gertuko soinuak lantzeko helburuak garatuta. Arnasketa erritmoak lantzea eta modu egoki batean arnasten ikastea berebiziko garrantzia dauka arrazoi desberdinengatik. Batetik, lasaitasuna eta sentimenduen oreka bat aurkitzeko baliogarria delako, hala nola, erlaxazioa aurrera eramaten denean, edota osasun kontu dela eta.

Bestalde, musika sormenari dagokion tokia, askotan ez da modu esplizitu batean adierazten, baina beste batzuetan bai. Erritmo bati melodia eman, musika bati istorio bat egokitu, edota musika tresnen sorkuntza adibide garbiak dira. Baina, diseinu honen proposamenean musika sortzen diren emozioen adierazpen bidea bihurtzea da helburu, eta hori testu liburu honetan era inplizitu batean agertzen da adierazita. Sortu aditza aipatu ez arren, istorio baten egoerei musika bat egokitzea aipatzen da adibidez, eta horretarako musikaren sormena, adierazpena eta irudikapena beharrezkoak dira.

Sormenari lotuta, inprobisazioaren eta pantomimaren baliabideekin aurkitzen gara testu liburu honetan. Testu liburuaren azterketari esker ikasitako baliabideak dira

¹⁶ Musikogramak musika irudien bitartez adierazteko idazkera da. Orokorrean, haurrentzako zuzenduta dago, partituren irakurketan murgiltzen hasteko. Irakurketaren eta idazkeraren norbidea (ezkerritik eskuinera) barneratzeko egokia da.

niretzat, eta haurren parte hartze eta protagonismoa lortzeko bide ludikoak direla uste dut. Gainera, ikusi dugun moduan, baliabide hauen bidez, imitazio eta kopiatzean oinarritzen diren helburuak osatzeko eta zabaltzeko aukera izango dugu. Imitazioz ikasten den guztia haurren esperientzietara egokitzeko baliogarriak dira bi baliabide horiek.

Azkenik, unitate desberdinetan kantuarekin disfrutatzeke helburua ikusi ahal izan dut. Lehen aipatu dudan moduan, kantari soilik erreferentzia egiteak, umeen emozioak adierazteke bideak murrizten ditu, dantza, erritmoak, gorputz adierazpena eta beste bide batzuen ukapena egiten duelako. Beraz, kanten disfrutaztea aipatzen badu, aipatzen dituen gainontzeko prozedura guztiak aipatu beharko liratekeela uste dut.

3.3. Diseinuaren proposamena 3.3

3.3.1. *Sarrera 3.3.1*

Proposamen honen bidez haurrei musika komunikazio bidetzat aurkeztuko diegu, hau da, musika sentitzen duten hori adierazteke bidea dela erakutsiko diegu. Horretarako, musikak emozioetan duen eragina edo emozioak sortzeko duen eraginean eta ikerketaren ondorioetan oinarrituta diseinua sortzen saiatuko naiz, izan ere, pedagogo desberdinen eta *La Batuta Mágica* testu liburuaren ikerketari esker musikak haurren garapen integralean, hau da, garapen psikologikoan, sentsorialean, afektiboan eta sozialean duen eragina baieztatu ahal izan dut.

Horretaz aparte, “*REDES, musica y emociones*” (*youtube*-n dago eskuragarri http://www.youtube.com/watch?feature=player_embedded&v=QrjV9_0t7cE#!)

bideoan oinarrituta musikak eszena batetan daukan eragina ezagutu izan ahal dut. Bideo honetan, musikaren erabilpenaren bitartez eszena baten zentzua aldatzeko dagoen aukera ageri da aurkeztuta. Eszena berari musika desberdina ipinita bi emozio¹⁷ desberdin interpreta daitezke.

¹⁷ Lehenengo eszenan maitasun eta persona bat ezagutzeko gogoia ageri dira, baina bigarrenean persona batek bestean duen beldurra ulertzen da.

Proposamenaren helburu nagusia emozioen hezkuntza bideratzeko musika sormenaren proposamen baten diseinua da, hain zuzen ere, helburua musika tresna banda eraikiz eta sortutako soinuen bitartez bideoaren ondorioz agertzen diren emozioen adierazpena aurrera eramatea da.

Gauzak horrela, proposamena bi atal desberdinetan egongo da banatuta. Lehendabiziko atalean, bideo bat ikusita eta musika lan bat entzunda musikak emozioetan duen eragina erakutsiko diegu, izan ere, irudi berean musikarekin edo musikarik gabe ikusita sortzen diren emozioak desberdinak direla baieztatuko dute. Eta bigarren atalean, haurrek emozio horiek adierazteko musika lana sortuko dute musikogramaren eraikuntzan eta musika tresnen adierazpenean oinarrituta.

3.3.2. *Proposamenaren egitura* 3.3.2

Lehen aipatutako moduan, diseinuaren proposamen bi atal nagusietan egongo da antolatuta. Lehenengo atalak, emozioen eta musika eta emozioak duten harremana antzematean oinarrituko da eta bigarrenak, ordea, emozioak musikaren bidez adierazteko jardueran.

- Antzematea

Lehenengo atalean, zehatz-mehatz *antzematea* landuko dut; musikaren hezkuntzari begiratuta, entzuten jakiteak garrantzi handia duen prozesuak. Antzemate fase honen bidez, haurrak proposamenean kokatuko ditugu, hau da, egingo ditugun jardueren helburua adieraziko diegu (musikak emozioetan duen eragina ulertzea eta emozioak musikaren bidez adierazteko aukera), beti ere, haur hizkera erabilita eta aspektu teknikorik aipatu gabe.

Horretarako, lehendabizi, *Tormenta Solar* bideoa (youtuben dago eskuragarri: <http://www.youtube.com/watch?v=bXRlgGSpmfU>) erabiliko dugu. Bideo honetan Eguzkia eta honen ekaitzak ageri dira. Bideoak sentsazio desberdinak sortarazteko helburuarekin ikusiko dugu, izan ere, batzuetan Eguzkiaren berotasunak oroitzen lasaiak eta bareak gogoarazten dizkigu, baina beste batzuetan, beroaren eta erretzeko arriskua dagoela jakinda emozio beldurgarriak sortzeko bidea ematen du. Hala ere, bideoa ikusten dugun lehendabiziko aldiak musikarik gabe egingo dugu, emozio eta

sentsazioen adierazpena bideratzen ikasteko eta hauek adierazteko beharrezkoa den askatasuna bereganatzeko.

Bideoa ikusten dugun bitartean, hezitzaileak ageri diren irudiaren plano aldaketak eta irudi bereizitasunak nabarmentzen ikasteko, haurrei irudiak aztertzen lagunduko die, esaterako, bideoan agertzen diren eszena esanguratsuenetan geldituz. Hitz egingo den guztia bideoaren iraupenari lotuta egongo da, hau da, hezitzaileak bideoa atal desberdinetan banatzen lagunduko die, geroago bideoari egokituko diogun musika bideoan gertatzen denarekin zentzua izan dezan. Atal horiek lehenago aipatutako irudi plano aldaketarekin edota ezustean agertzen diren irudiekin harremana izango dute.

Gainera agertzen diren sentsazio desberdinak idatzita adieraziko ditugu denen artean, geroago soinuen bidez zer adierazi nahi dugun adosteko. Emozioen adierazpena bideratzeko hezitzaileak bideoaren kontrola eta egoerabideratzeko galderak egingo ditu, hala nola:

- Ikusten ari zaretenarekin, zer datorkizue burura?
- Zer da arreta gehien deitu dizuenena?
- Zer sortarazten dizuete irudi hauek?
- Noizbait sentitu zarete horrela¹⁸?, noiz?, non?
- Nola sentitzen gara hori gertatzen zaigunean?, nola erreakzionatzen dugu?

Geroago, bideoa bigarren aldiz ikusiko dugu, baina soinurekin batera. Bideoari egokituko diogun musika lana *San Franciscoko Orkestra Sinfonikoak jotako Stravinskyren Firebird* da, Michael Tilson Thomas zuzendutakoa (youtuben eskuragarri dago hurrengo helbidean: http://www.youtube.com/watch?v=ashMSM_kc4M) dena. Berriz ere, aurreko galderak egingo dizkiegu, bideoaren musika entzunda sentsazio desberdinak sortarazi zaizkien konprobatzeko eta musikak emozioetan duen eragina ziurtatzeko. Galderen bidez, emandako erantzun berriak aztertuko ditugu, eta horiek musikaren arlotik sakontzen eta ikertzen hasiko gara. Horretarako, hezitzaileak hurrengo galderak bideratuko ditu:

¹⁸ Umeekin hitz egiterakoan, emozioari egingo diogu erreferentzia, hau da, emozioaren izena aipatuko dugu eta emozio horren inguruko testuingurua ere bai

- Zer sentitu duzue orain?
- Aldaketarik sumatu al duzue zuen sentsazioetan musika zegoelako?
- Zerbaitek arreta deitu dizue? Momentu berezirik sumatu duzue musika zela eta? Nolakoa zen hori? Soinu berezia nabarmendu duzue?

Momentu berezi hori deskribatzen hasten direnean eta bere emozioei buruz hitz egiten hasten direnean, emozioen hiztegia barneratzen hasteaz gain, sentimenduak identifikatzen hasteaz gain, eta nolako egoeretan agertzen diren ulertzeaz gain, musikaren bidez adierazteko aukerak aurkeztuko dizkiegu. Hori aurrera eramateko, soinu parametroetan oinarrituko gara, hain zuzen ere, soinu altuerak aztertuko ditugu, altuak eta grabeak identifikatuz; soinu iraupenak ere bai, laburra eta luzea desberdinduz; soinu intentsitatean ere oinarrituko gara, fuerteak eta suabeak ezagutzeko eta azkenik soinu tinbreak ere aztertuko ditugu, sortarazitako emozioari musika tresnak egokituz.

- Adierazpena

Behin bideoak eta musikak eragindako emozioak eta horiek adierazteko aukera desberdinak aztertu ditugula, proposamenaren bigarren atalari hasiera emango diogu, hain zuzen ere, *adierazpenari*. Sentimenduak musikaren bidez adierazteko baliabideak eskainiko dizkiegu hurrei, musika eta emozioen arteko harremana esperimentazioaren bidez sortzen hasteko. Proposamen, honetan erabiliko ditugun musika tresnak dira: danborra, kristalezko botilak, triangeluak, karraka eta xafla metalikoa.

Baliabide hauek emanda hurrek bideoak sortutako beldur, egonezina, eta urduritasuna adierazten duen musika lan baten diseinua sortuko dutela suposatzen da, aukeratutako musika lana dela eta, baina hurrei emozio desberdinak sortu zaizkiela badiote, horien adierazpenera bideratuko dugu proposamena. Honetarako, *musikograma*¹⁹ (ikus. eranskina I) erabiliko dugu, bertan sortuko duten musika lana grafikoki adieraziko dute ez ohiko grafiak erabiliz, hain zuzen ere, Paynterrek proposatutako moduan.

¹⁹ Musika ikur ez formalen bidez adierazteko bideratuta dago

Proposamenaren atal honetan, haurrak protagonistak izan arren, hezitzaileak espazioa eta denboraren antolaketa egoki bat bilatzen saiatuko da. Horretarako, haurrak musika tresnekin esperimentatu eta gero lau talde desberdinetan banatuko ditu, hain zuzen ere, aukeratutako musika tresnen arabera. Horrela musikogramaren kontsignak interpretatzeko orduan ez dute arazorik izango, talde bakoitzak bere grafia berezia zein den identifikatuko duelako.

Musika sortzen hasi aurretik, proposamenaren hasierako atalean aukeratutako bideoaren zatien arabera musika sortuko dutela esango zaie, sortzen duten hori ikusitako bideoarekin bat egin dezan. Haurrak taldekatuta daudela, emozioak adierazten hasteko prest egongo dira.

Lehenengo saiakeran, haurrak musika tresnekin esperimentatzen utziko diegu, musika tresna guztiak ezagutzeko aukera egoteko eta bakoitzak eskaintzen duen aukera ezagutzeko. Esperimentazio hau aurrera eramaten den ahala musikogramaren erabilera sartuko dugu, grafia ezagutzen hasteko eta musika berria sortzeko orduan musikograma baliabide bilakatu dadin. Esperimentazioa amaitu eta gero eta musikogramaren zeinuak, eta erabilera ulertu eta gero, bideoan banatutako atalak adierazten hasiko dira, musikogramaren irudikatuz eta sortutakoa instrumentuen bidez frogatuz.

- Saioaren amaiera

Azkenik, bideoaren atal guztiak nola adierazi erabaki dutela, denen artean sortutakoa joko dute soinu banda bilakatuz eta Eguzkiaren bideora musika lana txertatuz. Amaitzeko saioaren balorapena egiteko saioan sentitutakoari buruz hitz egingo dugu eta emozio horiek adierazteko aukerez ere bai. Gainera, musikak emozioetan duen eraginaz edota musikak emozioak sortzeko duen ahalmenaz ez ahazteko Eguzkiaren bideoa *Bachen Cello Suite nº1* (eskuragarri youtuben: <http://www.youtube.com/watch?v=S6yuR8efotI>) jotzen duen musika lana lasaigarriarekin ikusiko dugu azkeneko aldiz, sortu zaien sententzioa hasierakoaren antzekoa edo bera den konparatzeko.

3.3.3. *Materialak eta baliabideak 3.3.3*

Proposamena aurrera eramateko, ikusi dugun moduan, material eta baliabide desberdinak erabiliko ditugu. Batetik, musikograma egongo da, hau hezitzaileak saioa aurrera eraman baino lehenago prestatu beharreko materiala da; bestetik, proposamenaren garapenaren muina hezitzaileak erabilitako bideoetan eta musika lanetan dago. Kasu honetan, Eguzkiaren bideoa, beldurra eta lasaitasuna sortaraztera bideratutako musika lanak aukeratu ditut, baina emozio desberdinak lantzeko helburua egonez gero, bi euskarri hauek aldatu beharra dago besterik ez. Eta azkenik, haurrek musika sortzeko musika tresnak erabili ditugu. Hauek ere, ikastetxearen material eta baliabideen aukeraren arabekoak izango dira.

Musikogramak (ikus. eranskinak I) erabiliko ditugun musika tresna guztiei erreferentzia egingo die, horregatik, musika tresna bakoitzari iraupen eskema erritmiko bat egokituko zaio. Hauek sortuko den soinuaren iraupena adierazten dute, baina aukeratutako instrumentuen izaera desberdina dela eta, sinbologia horren arteko harremana bilatu beharra dago. Musika tresnak bi talde nagusitan banatuko ditugu, izan ere, danborra, botila eta hirukiaren soinua laburragoak dira karraka eta xaflaren soinuaren iraupenarekin konparatuta. Gauzak horrela, lehenengo instrumentu taldearen arabera karraka eta xafla metalikoen soinuaren iraupena definitzeko proposamena egingo dugu, baina haurren gaitasunak kontuan hartuta, horrelako erlazioa egiteko zailtasunak agertzen direnez, prozedura hori errespetatzea ez bada posible ez diogu garrantzirik emango.

Hezitzaileak proposamena gelan praktikan jarri aurretik plastifikaturiko panel bat prestatuko du, geroago haurrek txartelen edo gometxen eta errotulagailuaren bidez osa dezaten. Nik aurkezteko dudak musikograma diseinua proposamen bat da, hezitzaile bakoitzak bere gelara hobekien egokitzen diren irudiak erabiltzea izango da egokiena.

Jarduera hau garatzeko erabiliko den musikograma 3 soinu parametroz agertzen dira, iraupena, intentsitatea eta tinbrea. Bestetik, 4 musika tresnei egingo die erreferentzia, kristalezko botilei, hirukiei, danborrari, karrakei eta metal xaflai. Kartoi-xehean pentagrama ageriko da marraztuta, baina ohiko pentagramen funtzioa bete beharrean,

hau da, soinuaren altuera adierazpena, instrumentu bakoitzarekin aurrera eramango den garapen horizontala adieraziko du.

Bestalde, lehenago esandako moduan, musika tresna bakoitzari ikur bat egokitu diogu eta horretaz aparte ikur guztien arteko harremana egongo da. Harreman hori denborari lotuta dago eta hau da harreman horri erantzuten dion eskema:

- Danborra, botilak eta hirukiak: kolpe bat gomets bat da / bi kolpe bi gomets dira/ lau kolpe lau gomets
- Karraka eta xafla metalikoak: soinu laburra suge motza da / soinu luzea suge luzea

Hortaz, musikogramaren itxura grafikoa eranskinetan ikus daiteke. Gelan musikograma luzeagoa egingo genuke haurrek behar duten tokia izateko eta inprobisatzen joaten diren ahala aldaketak egin ahal izateko. Musikograma zutabe desberdinetan banatuta dago, zutabe bakoitzak bideoa aztertzerakoan egindako parteei egingo diote erreferentzia.

Bestalde, erabiliko ditugun instrumentuak, danborra, hirukia, kristalezko botilak, xafla metalikoak eta karrakak izango dira eta erabilitako ikus-entzunezko baliabideak hurrengo helbideetan eskuragarri daude:

- *Tormeta solar* bideoaren 0:15-01:26 denbora tartea (youtuben dago eskuragarri: <http://www.youtube.com/watch?v=bXRlgGSpmfU>)
- *San Franciscoko Orkestra Sinfonikoak jotako Stravinskyren Firebird* da, Michael Tilson Thomas zuzendutakoa eta lehenengo 01:30 denbora tartea (youtuben eskuragarri dago: http://www.youtube.com/watch?v=ashMSM_kc4M)
- *Bachen Cello Suite nº1 Prelude* musika lanaren lehenengo 01:20 denbora tartea (eskuragarri youtuben: <http://www.youtube.com/watch?v=S6yuR8efotl>)

3.3.4. Zeharka landutako gaitasunak edo konpetentziak 3.3.4

Arlo teorikoaren atal desberdinetan musikaren hezkuntzak haurren garapenaren atal desberdinetan duen eraginaz informatu naiz. Batetik, curriculumaren arlo guztien

arteko harreman hori ikusi dugu, horrek garapena aurrera eramateko lortu beharreko kompetentzia desberdinetan eragina adierazten du; eta bestetik, musikaren hezkuntzak garapen integralean dituen ekarpenak *musika sormenaren* atalean ikusi ditugu.

Hori guztia kontutan izanik, proposamenen honen bidez musika hezkuntza eta musikari baten gaitasunak lantzeaz gain haurren garapenean eragina duten beste arlo batzuk edota kompetentziak lantzen direla ondorioztatu daiteke.

Lehenik eta behin, proposamena emozioen hezkuntzara bideratuta dagoela jakinda, haurren garapen emozionalean dituen ekarpenak nabarmentzen dira. Kasu honetan, haurrek bere barnean sortarazte zaizkien emozioak adierazteko beldurra galduko dute, izan ere, ingurukoek hauek komunikatzeko orduan naturaltasun osoz jasoko ditugu eta horiek baloratzen eta ulertzen lagunduko diegu. Horren haritik, ikaskideen arteko errespetu harremanaren presentziaren beharra nabarmenduko dut. Gainera, emozioak baldintzatzen duen egoerarik ez da aurkeztuko, eta emozio berezirik sentitzera ez dira behartuta ikusiko. Era berean, emozioak naturaltasunez eramanez, bakoitzak heurre buruarenganako konfiantza bereganatuko du eta oreka mental bat bilatzen ikasiko dute emozioen adierazpenari esker. Ondorioz, haurrek emozioen adierazpenaren kontrol bat bereganatzen dutenean *niaren* garapen sendo bat lortzeko aukera dute, heurre buruaren kontrola eta oreka aurkitzen dakitelako.

Bestalde, jardueraren honen antolaketa gunea talde lanean dago oinarrituta. Dinamika horren presentziarik gabe ezinezkoa da sortu nahi den musika lana. Ikaskideen arteko komunikazioa, koordinazioa eta elkar eragina ezin bestekoa da, hizkuntza komunikaziozko kompetentzia eta gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna landuz.

Horretaz aparte, musikaren hezkuntzan beste arlo edota diziplinen edukien erabilera beharrezkoa dira, hala nola, matematikaren, idazketaren eta psikomotrizitatearen oinarritzko garapenaren gaitasunen erabilera. Matematikaren kontrolaren bidez, erritmoaren neurriak barneratzeko erraztasuna bereganatuko dute haurrek, kasu honetan, banatutako bi musika tresnen taldeen koordinazioa bideratzea posible izango da. Gainera, musikogramaren zeinuen edo eskemen interpretazioan musikak ere lagunduko du, hain zuzen ere, identifikazioan. Oinarritzko idazketaren kontrolak datuen bilketan lagunduko du, hori dela eta, proposamen musikala honetan paper garrantzitsua

betetzen du arlo horren erabilerak, izan ere, emozioak konparatzeko orduan sortutako emozioen bilketarik gabe horiek nahasteko eta ahazteko arriskua legoke. Eta azkenik, musika tresnen bidez psikomotrizitatea lantzen dute haurrek. Horiekin praktikatzen duten bitartean muskuluen indarra eta kontrola lantzen dute.

3.3.5. Saioaren ebaluaketa 3.3.5

Proposamenaren ebaluazioari dagokionez, Nafarroako 23/2007 Foru Dekretuak ezartzen duen Haur Hezkuntzako Curriculumaren 7. artikuluan oinarritu naiz. *Ebaluazioa formatiboa, etengabea eta guztizkoa izanen da. Ebaluazio prozesuko teknika nagusia zuzeneko behaketa sistematikoa izanen da.* Beraz, haurrek proposamenean zehar izandako jokabide aktiboak, saiakera maila eta helburuetara iritsi ez arren, noraino lortu dituzten ebaluatuko dugu, izan ere, ikaskuntza prozesu hau ikasle guztien garapenean eragina izan dezan haur guztien behar espezifikoak kontuan hartu beharko dira.

Hori kontuan hartuta, alde batetik, ebaluazioaren bidez lortutako ikaskuntza prozesuak, erritmoak, eta ikasleriaren ezaugarriak identifikatuko ditut. Horretarako, proposamen honetara egokitzen diren Curriculumeko arlo bakoitzaren ebaluazio

Azkenik, saioaren ebaluazioaren bitartez, proposamenaren helburuak eta edukiak bete diren edo ez baieztatuta geldituko da. Hortaz, behaketan jasotzen ditugun datuak ebaluazio taula (ikus. Eranskinak II) batetan adieraztea izango da egokiena, datuen balorazioa egiteko orduan antolaketa garbi bat izan dezagun.

Taula 6: proposamenaren laburpena

EMOZIOAK SORTZEN eta ADIERAZTEN		HAUR HEZKUNTZA	ADINA: 5 URTE
HELBURU DIDAKTIKOAK		EDUKI DIDAKTIKOAK	
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Musika eta irudien bidez emozioak sortarazi zaizkie ▪ Emozio desberdinak identifikatu eta deskribatu ▪ Sortarazten diren emozioak hitzez, idatziz, soinu parametroak landuz eta musika tresnak erabiliz adierazi ▪ Sortutako musika lana musikograman adierazi eta jarraitu ▪ Musikak egoera bat interpretatzeko duen garrantziaz konturatu 		<ul style="list-style-type: none"> ▪ Musika instrumentu desberdinak (perkusioa, metala, haizea...) eta mugimendu adierazpenarekin esperimintatu ▪ Irudi eszena batetan oinarrituta sentimenduak landu eta musika sortu ▪ Ideien trukaketa eta adostea ▪ Musikograma osatu sortutako musika lanaren bidez ▪ Soinu parametro desberdinak erabilita musika tresnak jo 	
Metodologia	<ul style="list-style-type: none"> ▪ <i>Edwar Willems</i>: entzunaldi sentsoriala, afektiboa eta mentala desberdinu eta parte hartze aktiboa bultzatu ▪ <i>Carl Orff</i>: hizkuntza, musika eta mugimenduaren parametroak aztertzen ditu, perkusioan, sormenean eta inprobisazioan oinarrituta 		
Informazio gehigarria	Lantzen diren kompetentziak: <ul style="list-style-type: none"> ▪ Komunikazio linguistikoaren kompetentzia ▪ Ezagutza eta mundu fisikoaren interakzio kompetentzia ▪ Norberaren autonomiarako eta ekimenerako kompetentzia ▪ Kompetentzia artistikoa eta kulturala 		
JARDUERAREN GARAPENA			
<ol style="list-style-type: none"> 1. atala: antzematea landu musikak emozioetan duen eragina ikustarazteko <ol style="list-style-type: none"> a. <i>Tormenta solar</i> bideoa muskarik gabe ikusi <ol style="list-style-type: none"> i. Ikusten ari zaretenarekin, zer datorkizue burura? ii. Zer da arreta gehien deitu dizuena? iii. Zer sortarazten dizuete irudi hauek? iv. Noizbait sentitu zarete horrela ?, noiz?, non? v. Nola sentitzen gara hori gertatzen zaigunean?, nola erreakzionatzen dugu? b. <i>Tormenta solar</i> bideoa <i>San Franciscoko Orkestra Sinfonikoak jotako Stravinskyren Firebird</i> da, Michael Tilson Thomas zuzendutako musika lanarekin batera ikusi <ol style="list-style-type: none"> i. Lehengo galderak errepikatu eta erantzunak konparatu <ol style="list-style-type: none"> 1. Zer sentitu duzue orain? 2. Aldaketarik sumatu al duzue zuen sentsazioetan musika zegoelako? 3. Zerbaitek arreta deitu dizue? Momentu berezirik sumatu duzue musika zela eta? Nolakoa zen hori? Soinu berezia nabarmendu duzue? c. Bideoaren atal desberdinak banatu, emozio eta musika lanaren harremana aurkitzeko 2. atala: adierazpena, haurrek musika sortuko duten unea <ol style="list-style-type: none"> a. Musika tresna bakoitzari iraupen eskema erritmiko bat egokitu b. Musika tresna bi talde nagusiak banatu <ol style="list-style-type: none"> i. Danborrak, hirukiak eta kristalezko botilak: bat / bi / lau kolpe ii. Karrakak eta metal xaflak: laburra / luzea c. Musika tresnekin esperimintatu eta taldetan banatu aukeratutako tresnaren arabera d. Aukeratutako bideoaren atalak musikaren bidez adierazi eta musikograman plasmatu e. Sortutako bideoarekin batera jo 3. amaiera: sortutako emozioei buruzko balorapena egin eta musikaren eragina ziurtatu <ol style="list-style-type: none"> i. Eguzkiaren bideoa <i>Bachen Cello Suite n^o1</i> musika lana eta bideoa ikusi ii. Emozio berdinak agertu dira? 			

CONCLUSIONES / ONDORIOAK

La creatividad musical, como he podido ver mediante toda la documentación, no solo responder a crear música, sonidos o nuevas obras. La creatividad es un proceso que repercute en el desarrollo integral de los niños y de las niñas, de tal manera que si la trabajamos desde muy pequeños o pequeñas en el futuro nos puede ayudar a buscar salidas a diferentes situaciones problemáticas. Mediante este trabajo he encaminado la creatividad hacia la comunicación de las emociones mediante la música, ya que he podido remarcar la importancia de la educación emocional en el desarrollo integral.

Después del estudio de un aula en concreto pude ver que la música en muchas ocasiones es utilizada como un acompañamiento a las actividades. La música en la Educación Infantil, según la o el docente, puede llegar a no tener el protagonismo que se merece. A pesar del poco uso que se le ha dado en el aula que he estudiado, pude ver que gracias a la música los niños y las niñas conseguían un mayor nivel de concentración e incluso de confianza en sí mismos. Lo cual, puedo considerar que no se tiene en cuenta la contribución que supone en el desarrollo humano, como hemos podido ver en la documentación del marco teórico. Pero, ¿por qué se da esta situación?, ¿los maestros y las maestras no tenemos suficientes conocimientos acerca de este ámbito?, ¿no podemos valorar la música como otra conducta educativa?

En mi opinión, además de recibir una formación universitaria en este ámbito es necesario saber utilizar todos los ámbitos como herramientas para la resolución de situaciones reales de la infancia, ya que cada niño o niña tendrá más conexión según en el ámbito familiar que haya crecido. En el caso de esta propuesta podemos utilizar apoyos como es el libro de texto *La Batuta Mágica*, donde los objetivos están encaminados al trabajo de la música y a lo que podemos trabajar mediante la misma. De esta manera, aunque no tengamos una formación profunda en un específico área podremos llevar adelante en nuestra aula aquello que consideramos de importancia.

Por otro lado, después del estudio de las rutinas del aula he podido concluir que a los niños y a las niñas se les intenta hacer ver lo importante que es ser feliz. Pero no estoy de acuerdo con el método que llevamos a cabo en muchas ocasiones, ya que parece que el ser feliz es una obligación y las demás emociones no son tan adecuadas. Por ello, e intentando responder a la mayor diversidad del alumnado mediante la

propuesta de mi diseño para el trabajo de las emociones mediante la creatividad musical. El alumnado es el que crea y deduce lo que ve en el video y es el que decide qué sentido darle a la escena. En ningún momento les diremos que lo que sienten al escuchar y ver el video no es correcto, si no que encaminaremos esas emociones a la obra musical que tendrán que crear.

De esta forma, en este trabajo la música se convierte en un medio de comunicación, se convierte en un recurso más para la resolución de problemas reales, en este caso la expresión de las emociones, y se convierte en una opción más para la adaptación de cada personalidad, ya que muchos y muchas se verán identificados o identificadas con este forma de expresión.

No podemos olvidar que a la hora de trabajar las emociones cada niño y niña son un mundo y que por ello tendremos que conseguir que expresen lo que sienten en cada momento. No siempre sentiremos con la misma música las mismas emociones, según nuestro estado de ánimo la música nos creará unas emociones u otras. Además todos los niños y todas las niñas a pesar de sentir la misma emoción no la sienten de la misma manera ni les afecta de la misma forma, puesto que cada uno de ellos y cada una de ellas proceden de un ámbito social, familiar y económico diferente. Es por ello, la necesidad de la creatividad. Si les ofrecemos propuestas donde solo hay opción a la imitación, no aprenderán ni conocerán los métodos diferentes que se adecuan a cada uno de ellos o de ellas y como resultado no podrán comunicar lo que realmente sienten.

Por tanto, para responder a todas las necesidades de nuestro alumnado a la hora de trabajar con la música, como en otros ámbitos, intentaremos ofrecer la mayor diversidad de materiales y recursos. Así cada alumno o alumna descubrirá y conocerá aquel que le ayude de verdad en su desarrollo, mientras que trabajan los parámetros de los sonidos y otros procesos musicales. Esas técnicas que ofrezcamos a nuestros niños y niñas deberán ir unidas a las necesidades de comunicación y expresión que tengan. Cada educador o educadora deberá de ser consciente del alumnado al que está acompañando, creando un nuevo espacio de posibilidades en el que sin ponerse por encima de ellos y ellas ayuden a desarrollar sus capacidades de percepción y

representación sintiéndose seguros de sí mismos, lo cual permitirá la creación y hará desaparecer el miedo a la equivocación.

En otras palabras, si queremos educar niños y niñas críticos y seguros de sí mismos capaces de comunicar aquellas necesidades o emociones que sienten, tenemos que ser conscientes de que como educadores que somos, tenemos la obligación de conocer a toda nuestra aula para poder ofrecer los recursos necesarios que respondan a la diversidad del alumnado. En el caso de música, si la consideramos un medio de comunicación, no nos centraremos solamente en crear futuros músicos, si no que intentaremos transmitir que mediante diferentes formas de expresión podemos encontrarnos a nosotros mismos o nosotras mismas. Y que en la mayoría de medios de comunicación cada uno de nosotros o cada una de nosotras tenemos nuestro lugar, es decir, no nos centraremos solamente en una categoría musical sino que daremos a conocer todas las opciones posibles como son la expresión vocal, la expresión corporal o la instrumental.



















ERREFERENTZIAK

- Alsina, Masmitjà, P. (1994) *La música y su evolución: historia de la música con propuestas didácticas y 49 audiciones*. Barcelona: Graó
- Alsina, Masmitjà, P. (1997). *El área de educación musical: propuestas para aplicar en el aula*. Barcelona: Graó
- Aymerich, C. y M. (1981). *Expresión y arte en la escuela. La expresión musical / la expresión como auxiliar didáctico*. Barcelona: Teide S.A.
- Bernal, Vázquez, J.; Gallardo, Vigil, M.A. (2009) *Medición de la creatividad en la educación musical escolar*. Universidad de Granada. Revista Internacional de CREATIVIDAD APLICADA. [Eskuragarri (29/01/2010): <http://www.creatividadcursos.com/recreate/spip.php>]
- Cartón, C.; Gallardo C. (1993). *Educación musical "Método Kodály"*. Valladolid: Simancas Ediciones, S.A
- Compagnon, G.; Thomet, M. (1966). *Educación del sentido rítmico*. Buenos Aires: Kapelusz, S.A
- Díaz, M.; Giraldez, A. (2007). *Aportaciones teóricas y metodológicas a la educación musical*. Barcelona: Graó
- Díaz, M.; Ibarretxe, G.; García, Malbrán, E.; Malbrán, S; Riaño, M. E. (2010). *Fundamentos musicales y didácticos en educación infantil*. Santander: PUBliCan, Ediciones de la Universidad de Cantabria
- Díaz, M.; Frega, Ana Lucía. (1998). *La creatividad como transversalidad al proceso de educación musical*. Vitoria-Gasteiz: Amarú
- Díaz, M.; Rianño, Calan, María Elena. (2007). *Creatividad en Educación Musical*. Santander: Universidad de Cantabria
- Gómez, Cumpa, J. (2005). *Desarrollo de la creatividad. Unidad de Maestría en ciencias de la educación*. Lambayeque: Fondo Editorial Universitario

- Hernández, Moreno, A. (1993). *Música para niños. Aplicación del “Método intuitivo de audición musical” a la educación infantil y primaria*. Madrid: Siglo XXI de España editores, S.A.
- Howard, J. (2000). *Aprendiendo a componer*. Madrid: Alak, S.A.
- Lopez Rodríguez, F. (director de la colección). (2003). *Emociones y Educación. Qué son y cómo intervenir desde la escuela*. Barcelona: Graó, de IRIF, S.L.
- Lorente, R. (1981) *Expresión musical en preescolar y ciclo preparatorio*. Madrid: Narcea, S. A.
- Maiz, R.(2011) *Nafarroako landa eremuko eskolak: Txikitasunak elkaturik*. Hik Hasi aldizkaria, 12-14. [Eskuragarri (2011/05) <http://www.hikhasi.com/fitx/fitxategiaJeitsi.php?id=189&emota=2&dmota=pdf>]
- Malagarriga, T.; Assumpt, V. (2003). *La audición musical en la educación infantil*. Barcelona: Ceac
- Martín, Elío, M. I; (TFG). *TRABAJO FIN DE GRADO: “La educación musical en su contribución al proceso formativo de la educación infantil”*. Escuela Universitaria de Segovia. Universidad de Valladolid
- Pahlen, K. (1961). *La música en la educación moderna*. Buenos Aires: Ricordi Americana
- Pascual, Mejia, P. (2006). *Didáctica de la música para Educación Infantil*. Madrid: Pearson Prentice Hall
- Paynter, J. (1972). *Oír, aquí y ahora*. Buenos Aires: Ricordi Americana S.A.E.C.
- Proyecto Curricular y Programaciones Navarra (). *La Batuta Mágica. Proyecto Curricular y Programaciones*. Madrid: Pearson
- Torrance, E.P. (1995) *Creative Teaching and Learning*. New Jersey: Ablex Publishing Corporation
- Willems, E. (2001) *El oído musical. La preparación auditiva del niño*. Barcelona: Paidós, SAICF

ERANSKINAK

Eranskinak I: diseinuaren musikograman erabiliko diren irudien proposamenak

Eranskinak II: behaketa eta ebaluazioa aurrera eramateko taulak

Taula 7: behaketaren emaitzak biltzeko taularen proposamena

IKASLEAREN IZENA	HELBURUAK	LORTU DA	EZ DA LORTU	BEHAKETAK
1	Musika eta irudien bidez emozioak sortarazi zaizkie			
2				
3				
4				
...				
15				
1	Emozio desberdinak identifikatu eta deskribatu			
2				
...				
15				
1	Sortarazten diren emozioak hitzez, idatziz, soinu parametroak landuz eta musika tresnak erabiliz adierazi			
2				
...				
15				
1	Sortutako musika lana musikograman adierazi eta jarraitu			
2				
...				
15				
1	Musikak egoera bat interpretatzeko duen garrantziaz konturatu			
...				
15				

Taula 8: curriculumeko ebaluazio irizpideak eta helburu eta edukien arteko harremana

ETAPAREN XEDEA	ARLOKO HELBURUAK	EDUKIAK	EBALUAZIO IRIZPIDEAK
Beren eta besteen gorputza eta ekintzarako ahalmenak ezagutzea eta desberdintasunak errespetatzen ikastea	Bere jokabidea besteen beharretara eta eskakizunetara egokitze gaitasuna, errespetuko, laguntzako eta lankidetzako jarrerak eta ohiturak garatu eta mendetasuneko nahiz nagusitasuneko jokabideak baztertzeko.	<p>“Nork bere burua ezagutzea eta autonomia pertsonala”</p> <p>1. multzoa. Gorputza eta norberaren irudia</p> <ul style="list-style-type: none"> Bere eta besteen sentimenduak, emozioak, bizipenak, lehentasunak eta interesak identifikatu eta azaltzea. Nork bere sentimenduak eta emozioak gero eta hobeki kontrolatzea. 	<ul style="list-style-type: none"> Bere gorputzaren eskema eta kontrola, bai globala, bai atalka, hobetzen ari dela erakustea eta bere gaitasunetan konfiantza eta besteekiko errespetua izatea.
Komunikazioko trebetasunak garatzea hizkuntza, adierazpide eta irudikapenerako bide desberdinetan	<p>Bere sentimenduak, emozioak, beharrak edo lehentasunak identifikatzeko gaitasuna, hala nola haiek besteei azaldu eta komunikatzekoa, besteenak ere identifikatuz eta errespetatuz</p> <p>Sentimenduak, nahiak eta ideiak adieraztea bai ahozko hizkuntzaren bidez, bai bestelako hizkuntzen bidez, eta beren asmora eta egoerara hobekien egokitzen dena aukeratzea</p> <p>Hizkuntza desberdinetan azaldutako arte lanak ezagutzen hasi eta teknika batzuk erabiliz irudikapen eta adierazpen artistikoko jarduerak egitea.</p>	<p>“Nork bere burua ezagutzea eta autonomia pertsonala”</p> <p>1. multzoa. Gorputza eta norberaren irudia</p> <ul style="list-style-type: none"> Zentzumenen erabilera. sentsazioak eta pertzepzioak. <p>“Hizkuntzak: komunikazioa eta irudikapena”</p> <p>3. multzoa: Arte hizkuntzak</p> <ul style="list-style-type: none"> Ahotsaren, gorputzaren, eguneroko objektuen eta musika tresnen soinu-ahalbideak ezagutzea. Soinuak musika jo eta sortzeko erabiltzea. 	<ul style="list-style-type: none"> Arte eta ikus-entzunezkoen hizkuntzen baliabideak, materialak eta teknikak erabiliz adierazi eta komunikatu, haien ahalbideak aztertu, beren produkzioekin gozatu eta beren esperientzia komunikatibo eta estetikoak besteekin partekatzeke interesa izatea.

